

Goienka2a

MANUEL LASARTEREN
GAINEN ERAKUSKETA
ARANTZAZUN



KIROLA: MENDIKO BIZIKLETA IRTEERA DOMEKAN ESKORIATZAN /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko urriaren 21a • V. urtea • 217. zenbakia • DOAN BANATZEKO

ARANTZAZU

Arantxa izenekoen eguna ospatuko dute domekan /6



ALBERTO IRAZU / 'GAZTETXULO'

"Urte batzuk barru ikusiko da gazteendako hiztegia egiten ari garen edo ez" /7

KULTURA

Lauaxetaren omenezko diskoaren aurre-estreinaldia /15

Koaderno handi bat, eskubideen gaineko atxikimenduak jasotzeko

Eskubide zibil eta politikoen inguruko herritarren atxikimenduak jasotzeko asmoz, 18/98+... taldeak Kaiera egitasmoa antolatu du. Hilabetez, herriz herri ibiliko dute koaderno bat; hala, Debagoienean eguaztenez eta eguenean aurkeztuko dute.

Eskuz egindako liburu handi bat da Kaiera; azalean Xabier Idoate margolariaren artelana du. 100 pertsona ezagunek euren ekarpenak egin eta gero, Euskal

Herriko herrietan barrena ibiliko da.

Ekarpenak egin dituzten artean, bada debagoiendarrak: Jesus Mari Lazkano margolaria; Jabier Retegi, Eusko Ikaskuntzako presidentea; eta German Kortabarría, ELAko komunikazio arduraduna, besteak beste.

Ekitaldi nagusiak 18:30ean egingo dituzte Arrasaten eta Bergaran. Besteak beste, Kaierako testuak irakurriko dituzte /4

ASTEKO GAIA: EGUENEAN, 'ON JOSE MARIAREN EGUNA' EGIN ZUTEN ARRASATEN

MCCk 50 urte egin ditu urriaren 20an

MCC hasi da 50. urteurrena ospatzen. Hain zuzen ere, atzo, urriaren 20an, bete zen mende erdi bost bazkide sortzaileek euren tai-

lertxorako industria baimena sinatu zutela.

Bi ekitaldi egin zituzten atzo, eguna: bata, Donostian, eta bes-

tea, Jose Maria Arizmendiarrizaren omenezkoa, Arrasaten. Beste hiru ekitaldi handi egingo dituzte apirilera bitartean. /2-3

ARRASATE

Uribarri auzoko 189 etxebizitzaren proiektua ia gertu

Uribarriko etxebizitzak eraikitzeko sortu den UTE Uribarri enpresa-elkartetik jakinarazi diguten bezala, bukatzeaz da lan horien gaineko behin betiko proiektua. Haren arabera, zazpi bloke etxe eraikiko dituzte Uribarri auzoan; guztira, 189 etxebizitza; horietatik 145 libreak eta 44 babes ofizialekoak. Etxeekin batera, besteak beste, 543 aparkaleku sortzea zehaztu dute. /6

DEBAGOIENA

Hegaztien gripeaz ez kezkatzeko eskatu du Osasun Sailak

Hegaztien gripeak azkenaldian sortutako kezka dela eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak esan du ez dagoela larritzeko arrazoirik. Izan ere, ez dago probarik ohiko gripearen birusa aldatuko dela esaten duenik. Osasunerako Mundu Erakundeak esan du ohiko gripearen aurkako txertoa hartu behar duela arrisku taldeak, eta hori gurean egiten da gaur egun. /5



Donostian, Maria Cristina hotelean, Jesus Catania eta Juan Mari Otaegi MCCko buruek egin zuten aurkezpena.

ARGAZKI PRESS

BERGARA

Artekalea eta Arruriaga zabalik azaro erdialderako

Bergarako Arruriaga eta Artekaleko urbanizazio lanak bukatzeaz daude. Apirila ezker zirkulazioa etenda egon ondoren, azaro erdialderako zabalduko dituzte berriro bi kaleok. Ur hoderia aldatu eta espaloiak berri-izeaz gain, bestelako apaingarriak jarriko dituzte Arruriaga- tika udaletxera doan tartean. /6

FordFocus berria. Kalitatea bete-betean.

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Gozatzeko pentsatuak irauteko eginek

www.laino.info

Volcom DC, NITRA, FORUM, JEENTUS, FOURSAHRE, SPECIAL BLEND, MADA, ELECTRIC, PROTECT, NIKON, VANS, LAKAI, REEF, GLOBE, OSIRIS, FALLEN, AGROSKATE, BESTIE BAT, RAONI, GSG, ALAI, ANTI HERO, ETC...

Bidekurutzeta 7, BERGARA -laino@laino.info- tlf: 943769250

ILUSIO Kreditua EUSKADIKO KUTXA



Adituak zure nahiak betetzen

Nahiren bat baldin baduzu bete ezazu gure **Ilusioen Sailean** % 5etik beherako mailegu pertsonal batekin.

KREDITU ILUSIOA ESKAINTZA

Epea	Interes nominala	
1 urte:	%2,98	%4,96 U.T.B. Irekiera-komisioa: %1 Komisioa alde aurretik amortizatzeagatik: %0 Komisioa alde aurretik kitatzeagatik: %0 Gutxieneko zenbatekoa: 9.000€
3 urte:	%4,19	
5 urte:	%4,44	
7 urte:	%4,55	

Eskaintza hori lortzeko ezinbestekoa da Nomina helbideratzea eta Euskadiko Kutxaren bizitza-aseguru bat kontratatuta edukitzea, eta bere Aurrezpen, Aurreikuspen edo Pentsio Planetako beste produktuaren bat.

05-10-15etik aurrera egindako eragiketarako eskaintza, 10 milioi eurora iritsi arte. Berrito finantzatzeko eragiketarako alde batera utzita.

Zurekin elkarlanean

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

MCC mende



T.U. LANKIDE

Ikerlaneko lehen harria ipintzen, 1974. urteko urrian. Kooperatiben ikerketa teknologikoko lehen zentroa izan da.

- Urriaren 20 baten, orain 50 urte, sortu zen gaur MCC dena
- Atzo, eguna, hasi ziren 50. urteurreneko ospakizunak

LEIRE KORTABARRIA

Euskal Herriko lehenengo enpresa-taldea da MCC, eta Estatuko zazpigarrena. 2004. urte bukaeran, 228 enpresak osatzen zuten, Estatuan eta kanpoan; industria eta banaketa sektoreak 10.400 milioi euroko salmentak izan zituen joan den ekitaldian, eta 72.000 langile zituen guztira. Talde handi horrek hasiera xumea izan zuen: estufak eta petrolioizko sutegiak egiten zituen tailer txiki bat zen. Tailer horretarako baimen agiria atzo dela 50 urte sinatu zuten bost bazkide sortzaileek Arrasateko notario-tzan, eta urteurrena ospatzeko ekintzak hasi dira.

Hala, bi ekitaldi egin zituzten. Lehenengo, Donostiako Maria Cristina hotelean, 50 urte hauen

errepassoa eta balorazioa egin zuen MCCk. Baina ekitaldi bereziena arratsaldean izan zen, Arrasateko Amaia antzokian, jende guztiari irekitako ospakizun baten, On Jose Maria Eguna izenburuarekin. Izatez, omenaldi horrekin hasi dira 50. urteurreneko ospakizunak.

Ekitaldian egotekoak ziren Juan Jose Ibarretxe, lehendakaria; Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Gipuzkoako ahaldu nagusia; Juan M^a Otaegi, MCCko kongresuko presidentea; Jesus Catania, MCCko kontseilu orokorreko presidentea; Ignacio Lakuntza, Arrasateko alkatea; eta hiru libururen egileak euren lanarekin: Joxe Azurmendi (*El Hombre Cooperativo*), Fernando Molina (*Biografía sobre don Jose María*) eta Jose Ignacio Telletxea (*El otro don Jose María*). Lehenengo liburua aski ezaguna da; bigarrena, Arizmendiarrizaren biografia zibila, eta hirugarrena, biografia espirituala.

HIRU EKITALDI GARRANTZITSU

Egueneko ekitaldiarekin inauguratu zen 50. urteurreneko ospakizunen egitaraua. Egitarauko

lau ekintza handienetarikoa bat izan zen. Beste hirurak honakoak izango dira: azaroaren 17an, Kooperatibismoaren Mundu Eguna ospatuko dute Donostiako Kursaal jauregian. MCCko kooperatibek egindako lanari errekonozimendu publikoa egiteko modua izango da eta Gipuzkoako agintari askok parte hartuko dute.

Martxoaren 4an, Arrasaten, Sortzaileen Eguna ospatuko dute. Hildako bazkideen aldeko meza entzun ondoren, 800 bazkidek batera bazkalduko dute. MCCko ordezkariak hitzaldia egingo dute, ikus-entzunezko bat aurkeztuko dute eta kultura ekintzak izango dira.

Azkenik, maiatzaren 5ean, Bilboko Euskalduna jauregian, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Donostiako Orfeoia *Carmina Burana* joko dute. MCCko arduradun eta langileak, politikariak, unibertsitateak, komunikabideak... joango dira.

Beste ekitaldi asko izango dira: besteak beste, monumentu baten inaugurazioa, eta Fagor Elektratresnen 50. urteurreneko ospakizunak.

Estufak eta petrolioizko sutegiak egiten zituen tailertxoan hasi zen gaur MCC dena

Arrasaten bigarren ekitaldi bat egingo dute datorren martxoan: Sortzaileen Eguna

erdia ospatzen hasi da

Mugarri batzuk

1955: SORRERA SINADURA
Mondragoeko notario-tzan, industria baimena lizentzia sinatu zuten.

1959: LANKIDE AURREZKIA
Lankide Aurrezkia kreditu kooperatiba sortu zen, Lagun Aro tartean.


1969: EROSKI
Eroski kontsumo kooperatiba sortu zen, toki-ko kooperatiba batzuek osatuta.

1984: TALDEA SORTU ZEN
Mondragon
Kooperatiba Taldea eta Kooperatiben Kongresua sortu ziren.

1991: MCC PROIEKTUA
Kongresuak MCC proiektua onartu zuen. Antolaketa sektoriale-
ra trantsizioa hasi zen.

1998: UNIBERTSITATEA
MCCren baitan
Mondragon
Unibertsitatea jaio zen.

2004: GARAIA
Abenduaren 9an,
Garaia Berrikuntza
Gunearen lehenengo
harria ipini zen.



Petrolioizko Tagor sukaldea
(Gasteiz, 1955).

Kooperatibismoa eta aro berria

JOSEBA AZKARRAGA / HUHEZI-KO IRAKASLE ETA LANKIKO KIDEA

Arrasateko kooperatibek aukeratu ez duten jokaleku global berrian jardun behar dute. Kooperatibismo zaharra garatu zeneko baldintza historikoak agortu egin dira, eta jokabide berriak agertu dira (batzuetan, jokabide kontraesankorrak).

Baina arazoa ez dago bakarrik hor kanpoan, merkatu globalizatuaren exigentzietan. Hemen barruan ere, gure barruetan, badago zeri begiratu: bestela jokatzeko gaitasun ideologiko-kulturala behar da. Globalizazioa egokitzeko ezingo dira soilik irtenbide teknokratikoak abiatu, eta gaurko enpresa globalek bada-kite hori.

Kultura kooperatibista aro berriaren kontraesan sozial,



GOIENKARIA

ekologiko eta etikoetara ekarri beharko da, eta berauei aurre egiteko moduak bilatu, gure indarren neurrian. Bestelako globalizazio baten alde egiteko aukera dugu.

Kooperatiben giza-kudeaketa

JOXERRA ELORTZA / GIZA-KUDEAKETAN ADITUA

Urteekin batera garatzen joan da pertsonen kudeaketa. Lehen urteetan, kooperatiba bateko maila guztietako arduradunek, goiko nagusiek zein atalburuek, ondo zuzentzeko behar den formazioa ez zuten jasotzen. Pertsonen kudeaketa zer zen ere ez zekiten: beste behar batzuk zeuden, askoaz primarioagoak.

Gaur egun, pertsonen heziketa, parte-hartzea, promozioa, informazioa, komunikazioa... kudeatzen dira. Pertsonen gogobetetasuna hobetzeko asmoz, neurketak eta analisiak egiten dira.

Asko aurreratu da arlo honetan, nahiz eta nahikoa dela ezin da esan. Ezin konformatu egiten denarekin, pertsonak direlako gure helburu eta ardu-



MARUJO DEOGRACIAS


ra garrantzitsuenak: pertsonen ongizatea, garapena eta poztasuna. Horregatik izan beharko genuke inkonformismo hori. Garatzen eta hobetzen joango da gestio eredu hau.

Globalizazioaren erronka

IÑAZIO IRIZAR / MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Azken hamabost urteetan, Berlingo harresiaren erorketarekin, Txinaren irekitze ekonomikoarekin... globalizazioa bizkortu egin da. Munduko enpresa globalen aurka gure etxean lehiakorak izateko, globalki kudeatu beharra dago.

Produktuak guztiz baldintzatzen du enpresa bat, eta produktuak sarritan dakar atzerrian filialak ezartzeko ezinbesteko premia. Txinan, Indian eta Ekialdeko Europan gu baino gutxiago irabazten dute, lan asko egiteko prest daude, ondo prestatutako profesionalak ere badaude, eta prosperatzeko ambizio sana dute. Beraz, gurean balio erantsi handiko lanpostuek izango dute etorkizuna. Kooperatiba bezala aztertuz,



GOIENKARIA

ohiko multinazional bat ez delako, MCCren erronka dituen ezaugarri nagusiak, hots, elkartasuna, parte-hartzea eta demokrazia, ahal den neurrian filialtan ere ezartzen saiatzea da.


MCC etxean eta Europan

ADRIAN ZELAIA / MCC-KO IDAZKARIA ETA EUROPAN ORDEZKARIA

MCCren ekarpen nagusia, zalantza barik, izan da garapen ekonomikoa eta gizarte kohesioa batera joan daitezkeela erakustea. Euskal Herrian, hori baino gehiago: gure gizartea gehiago kohesio-natzeko eta ekonomikoki modu orekatuan garatzeko tresna funtsezkoa izan da MCC.

Europan, oso ezaguna da MCC eta kooperatibismoa, baina guri begira Amerikan egin dira gauza gehiago Europan baino.

Nik uste dut hemendik aurrera izan behar dela MCC garrantzi handiagokoa Europako lankidetzan. Europako eredu soziala krisian dago, eta lankidetzeta, edo autoeraketa, sortzeko eta eraikitzeko aukera izan daiteke hainbat arlotan:



T.U. LANKIDE

gizarte zerbitzuak, hezkuntza, osasuna, zerbitzuak... Horrelako aukera bat ez bada zabaltzen, Europako eredu sozialak eta gure herrien barne kohesioak ez dute etorkizun handirik.



BergaraCars



Zure konfiantzazko multi-marka kontzesionarioa

BMW 120 D BERRIA
BMW 320 I BERRIA
BMW X3 2.0 BERRIA
MINI COOPER BERRIA
MB ML 320 BERRIA
AUDI A4 2.0TDI BERRIA

Pablo Irizar
Aitziturri 1 • Bergara
T: 943 76 18 71 • F: 943 76 58 22
www.bergaracars.com
bergarcars@yahoo.es

VW TOUAREG R.5 2004
VW TOUAREG V10 2004
BMW 320 D 2005
BMW 530 D 2003
BMW M3 2003
AUDI A3 TDI 2003



ARGAZKI PRESS

Iruñean hasi zuen ibilbidea Kaiera egitasmoak eta eguazten eta eguenean iritsiko da Debagoienara.

Eskubide zibil eta politikoaren gaineko atxikimenduak jasoko dira Kaieran

'18/98+...' taldearen egitasmoa da eta herritarren sustengua jaso nahi du

IRATI AGIRREAZALDEGI

Eskubide zibil eta politikoaren inguruko herritarren atxikimenduak jasotzeko asmoz, 18/98+... taldeak Kaiera egitasmoa ipini du abian. Hilabetez herriz herri ibiliko dute koaderno bat; hala, Debagoiengan eguaztenean eta eguenean izango da.

Eskuz egindako liburu handi bat da Kaiera; azalean Xabier Idoate margolariaren artelana duena. 100 pertsona ezagunek euren ekarpenak egin ostean, Euskal Herriko herrietan barrena ibiliko da.

Euren ekarpenak egin dituzten artean bada debagoiendarririk: Jesus Mari Lazkano margolaria, Jabier Retegi Eusko Ikaskuntzako presidentea eta German Kortabarria ELAko komunikazio arduraduna, besteak beste.

Maite Aristegi 18/98+... taldeko kideak esan digunez, "Jendearen ekarpenekin babestu nahi dira lege antiterroristaren aitzakian eskubideak bortxatuak dituzten euskal herritarrak".

Egitasmo irekia izango dela esan digu Aristegik. "Eskubide guztien aldeko eta pertsona guztien eskubideen aldeko ekimena da. Gainera, Kaieran ez dira sinadura soilak jasoko. Hitz, olerki, marrazki, esaldi labur... Edozerk

"Eskubide guztien eta pertsona guztien eskubideen aldeko ekimen zabala da Kaiera"

balio du elkartasuna eta babesa adierazteko". Taldearen helburua da jendeak lantzea eta pentsatzea Kaiera horretan zer utziko duen.

DATORREN ASTEAN IBARREAN

Debagoiengan urriaren 26an eta 27an egongo da Kaiera. Ekitaldi nagusiak Bergaran eta Arrasaten egingo dituzte hurrenez hurren, baina bi egun horietan barrena Kaiera ibarreko herri guztietara eramateko asmoa dute.

Ekitaldi nagusiak arratsaldeko 18:30ean egingo dira bi herrietan, plazan. Musika, dantza, bertso eta Kaierako testuen irakurketa egin bitartean jendea ilaran jarriko da eta bere ekarpenak egingo ditu. Herri bakoitzean jende ezaguna gerturatuko da plazara, baina edozein herritarrek du Kaiera egitasmoan parte hartzeko aukera.

Ertzaintza autoen segurtasun neurriak begiratzeko hasi da

Uhalak, kaskoak eta umeen eserlekuak aztertuko dituzte

I.A.

Ertzaintzak eta zenbat udaltzainek segurtasun-uhalaren, kaskoaren eta umeendako eserlekuaren erabilera zaintzeko kanpaina hasi zuten EAEko errepideetan astelehenean. Eskola garraiorako autobusen kontrola ere egingo dute.

Urriaren bigarren hamabostaldian, ertzainek eta udaltzainek auto arinen eta garraiorako ibilgailuen segurtasuna bermatzeko aparteko arreta jarriko dute, herri barruko zein herrien arteko bideetan. Uztailearen azken hamabostaldian egin zuten aurreko kanpaina. 5.918 ibilgailu ikuskatu eta 213 arau-hauste antzeman zituzten.

Gainera, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa egiten duten tokietara informazioa bidaliko dute segurtasun-uhalaren azterketa sakona bermatzeko eta haren erabilera garrantziaz kontzientziazteko.

ESKOLA GARRAIOA

Azterketak egiten hasi dira, bestealde, eskola-garraiorako autobusetan ere. Zerbitzua egoki eskaintzeko baimen eta agirien kontrola egiten dute ertzainek; ikasle kopuruari arreta handi erreparatzen diote; ibilgailuaren baldintza teknikoak eta segurtasun-elementuak eta gidariaren baime-na egiaztatzen dute. Era berean, gidatzeko eta atsedean hartzeko denborak galdetzen dizkiote eta alkoholemia-proba ere egiten dute.

DEBAGOIENEAN LABUR

Lastertasun Handiko Trenaren aurkako manifestaziorako deia egin dute zapatarako

Zapatuan manifestazioa egingo dute Bilbon Lastertasun Handiko Trenaren aurka. AHT Gelditu! Elkarlana taldeak egin du deia eta 17:30ean hasiko da Jesusen Bihotzaren plazatik abiatuta. Euskal Y-aren egitasmoa "geldiaraztea bezain garrantzitsua da proiektu horren atzean gordetzen den gizarte eredu zalantzan jartzea" diote antolatzaileek. Izan ere, "proiektu txikitzaile hori kapitalismo industrialak eta kontsumo gizarteak sortzen dituen premia falsuen aginduetara dago".

Enpresak euskaratzeko konpromisoak eskatuko ditu Euskararen Kontseiluak

Euskal Herriko 50 langiletik gorako 1.300 enpresatan hizkuntza-konpromisoak zabalduko ditu Kontseiluak lan munduan euskararen presentzia areagotzeko Bai Euskarari Ziurtagiriaren bitartez. Kanpainak *Enpresan Bai Euskarari* leloa du. Kontseiluak euskararen normalizaziorako neurri zehatzak hartu eta gara ditzatela proposatu nahi die enpresei. Eta inplikatu nahi ditu zuzendaritzak eta Langile Komiteak. Euskara Sustatzeko eta Euskalgintza Babesteko Akordio Soziopolitikoaren sindikatu sinatzaileek (EHNE, ESK, ELA, Hiru eta LAB) kanpaina hedatzen lagunduko dute.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Guatemalan ezinduendako eskola irekitzeko dirulaguntza eskatu dute

Oñatiar batek eta bi durangarrek egin dute eskolaren proiektua

IRATI AGIRREAZALDEGI

Guatemalan eskola bat irekitzeko asmoz Oñatiko neska bat eta Durangoko beste bi hara joango dira datorren astean. Proiektua abian jartzeko dirua behar dute, ordea. Horretarako debagoiendarrei dei egin diete diruz lagun diezaieten.

Oñati ko Amaia Goitia eta Durangoko Olaia Albizu eta Zalao Uribe orain dela urte eta erdi Guatemalan izan ziren hango herri indigena bateko haurren egoera ezagutzen. Bost hilabete eman zituzten San Juan de la Laguna herriko eskolan lanean.

Handik itzulita euren ametsa izan da San Juan de la Laguna herrian urritasun fisiko eta psikikoak dituzten umeendako eskola bat sortzea, "hango haurrei etorkizun hobea eskaintzeko asmoz".

Horretarako proiektu bat gertatu eta Oñatiko Udalean zein hainbat enpresatan aurkeztu zuten dirulaguntzak lortzeko. Datorren astean, urriaren 26an,



Amaia Goitia oñatiarra (behean ezkerrean) bi durangarrek in joango da Guatemalara.

berri, Guatemalara joatekoak dira, eta debagoiendarren laguntza eskatu dute.

UHOIDEAK

Amaia Goitia oñatiarrak esan digunez, "gure hasierako asmoa eskolarena bazen ere, azken egunotan izandako uholdeak direla

eta, Guatemalan beste behar batzuk lehenetsiko dituzte".

Dirua jasotzeko, Euskadiko Kutxan kontu bat ireki dute (30350005380050040560). Amaia Goitiak esan digu hara helduta-koan ikusitako premien arabera erabakiko dutela dirua zertan erabili.



Aralarreko zinegotzi Joxe Etxeberriak, Xabier Sarasuak eta Oxel Erostarbek prentsaurrekoan eman zuten euren eskariaren berri.

Gastu militarrek gai sozialetara bideratzea eskatu du Aralarrek

GOIENKARIA

Aralarreko ibarreko hainbat udaletan mozioa aurkeztu du; eskatzen du Eusko Jaurlaritzak gastu militarretara bideratzen duen dirua pobreei laguntzeko izatea.

Aralar alderdiko ordezkarien esanetan, "Euskal Autonomia Erkidegoak Espainiako Gobernuari gastu militarretarako ematen

dion diruarekin pobrezia ezaba daiteke".

Esandakoak baieztatzen hainbat datu eman zituzten. Besteak beste esan zuten Euskal Autonomia Erkidegoak 2005ean 937 mila miloi euro eman zizkionla Espainiako Gobernuari gastu militarretarako. Eta horri gehitu behar zaiola gastu polizialeko ematen dena. "Datuak ikusita argi geratzen da zein erraza den kanpo zorrarekin amaitzea".

MOZIOAK

Beraz, Eusko Jaurlaritzari gastu militarrek gastu sozialetara bideratzeko eskatuko dio Aralarrek. Horretarako mozioak aurkeztuko dituzte hainbat udaletan. Gastu militarretarako dirua pobrezia ezabatzeko bideratzea, *pobrezia zero* milurteko konpromisoarekin bat egitea eta Euskal Herriko gizarte zerbitzuetara diru gehiago bideratzea dira mozioen azaltzen diren eskaerak.

Oraingoz, hegaztien gripeaz ez kezkatzeko eskatu dute

Ohiko gripearen bakuna hartzea gomendatu dute

GOIENKARIA

Hegaztien gripeak azkenaldian sortutako kezka dela-eta, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak esan du ez dagoela larritzeko arrazoirik. Izan ere, ez dago probarik ohiko gripearen birusa aldatuko dela esaten duenik.

Osasunerako Mundu Erakundeak esan du ohiko gripearen aurkako txertoa hartu behar duela arrisku taldeak, eta hori EAEn egiten da jadanik.

Hegaztien gripea hegaztien artean kutsa daiteke edo hegaztiatik pertsonetara pasa; baina ez pertsonen artean. Gainera, gertatu diren kasuak Asian izan dira eta kutsatutako hegaztiekin lotura handia zuten pertsonetan.

SENDAGAIK

Kezkatzeko arrazoirik ez dagoen arren, badaezpada herrialde guz-

tiei dei egin diete birusa aldatzen bada prest egoteko.

Birusaren aurkako sendagai bat badago, kasu zehatzetan baino erabiltzen ez dena. Hala ere, Espainiara oraindik ez dela iritsi esan digute Bergarako farmazia batean. Dena den, EAEn sendagai horren 100.000 ale erosiko dituztela jakinarazi du Osasun Sailak.

Gaineratu dute ez zaiela kasurik egin behar alarma deiei. "Gripearen gaineko jarraipena egiten ari gara eta arazorik balego aurre egiteko gertu gaude", esan dute.

Antzeman diren gripe kasuak Asian izan dira, hegaztiekin lotura zuten pertsonetan



URKI

Etxez Etxeko Laguntza

Pertsona nagusiendako edo ezinduendako laguntza pertsonala eta etxeko lanetarako laguntza eskaintzen dugu

Interesatuok deitu: 685 70 06 39 telefono zenbakira



MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABAETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATE
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045



SEIN
GRUPO TALDEA

Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

Mazda3. Behar duzuna badaukazu?



Bikar

M MENDIOLA

San Andres 10 D · Tel.: 943 77 21 00 · ARRASATE




ANTZUOLA

Buztinzuri kalea azaroan itxi egingo dute, urbanizazio lanak egiteko

Buztinzuri kalean, Herriko Plazatik eskola pare-rainoko zatian, urbanizazio lanak hasiko dituzte azaroan. Bi hilabete iraungo dute lanek eta denbora horretan itxita egongo da Buztinzuri kalea.

Azpiegiturak eta zorua berrituko dituzte, lehen Buztinzuriko goiko zatian egin zuten moduan. Hain zuzen, 129.000 euro da lan horien aurrekontua.

Udalaren asmoa da alde zahar osoa urbanizatzea. Hurrengo faseetan, Kalebarren, Herriko Plaza eta Ondarreko azpiegitura eta zorua berrituko dituzte./A.I.



UTE URIBARRI ENPRESA-ELKARTEA

ARRASATE

Uribarrin 189 etxebizitza eraikitzekeo proiektua bukatzen

Uribarriko etxebizitza horiek eraikitzekeo sortu den UTE Uribarri enpresa-elkartetik jakinarazi digutenez, bukatzeaz da lan horien gaineko behin betiko proiektua. Haren arabera, zazpi bloke etxe eraikiko dituzte Uribarri auzoan; guztira, 189 etxebizitza; horietatik 145 libreak eta 44 babes ofizialekoak. Oro har, etxe gehienek izango dituzte garajea, sotoa, beheko solairua, beste hiru solairu eta teilatu azpiko solairua. Uribarri enpresa-elkartekoek emandako xehetasunen arabera, "batez beste 115 metro koadro izango dituzte, bi eta hiru logelako etxebizitzak izango dira eta terraza zabalak izango dituzte, hegoaldeari begira". Etxeekin batera, besteak beste, 543 aparkaleku sortzea aurreikusiko dute, hiru toki etxebizitza bakoitzeko. /UBANE MADERA

ARAMAIO

Aramaio hobeto ezagutzeko mendi-irteera egingo dute bihar, zapatua

Orixol Mendi Elkarrekin eta Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak deitu dute biharko mendi-irteera. *Aramaixo be ezautu biekou* izena ipini diote ekimenari, eta Teilamendi, Izpizte eta Santikurtz Apaizaren Kobazuloa bisitatu dute. Hamarretakoa koban egingo dute eta nork berea eraman beharko du. 09:00etan aterako dira plazatik, eta Aramaio hobeto ezagutzeko interesa duten guztiak animatu nahi dituzte irteerara.

Antolatzaileen asmoa da bazkalordurako itzulzea Ibarrara. /U.M.

ELGETA

Azaroan itxiko dute Bolatoki taberna berriz errentan eman arte

Kiroldegia eta pilotalekua berritzeko lanetan dihardute uda ezkerre; eta lanak, besteak beste, Bolatoki tabernan ere egiten ari dira. Lanek eragozpenak sortu dizkiete tabernako langileei. Ondorioz, hainbat eskari egin dituzte Udalean; esaterako, komunak eta berogailua lehenbailehen ipintzea. Eskariak bete ezean azaroan taberna itxiko dutela jakinarazi digute. Bestalde, Udaletik baieztatatu digute azaroaren 16an taberna itxiko dutela eta horrela egongo dela berriz errentan eman artean. /I.A.

OÑATI

Arantxa izeneko eguna ospatuko dute domekan Arantzazun

Arantxa eta Arantzazu izena dutenen eguna ospatuko dute etzi, domeka, Arantzazun.

Dagoeneko 200etik gora Arantzak eman dute izena domekako ospakizunerako. Horien artean, duela 56 urte Arantzazun ezkondu zen 83 urteko donostiar bat. Eguerdiko mezaren ostean, Gandiaga Topalekua bisitatu dute eta gero, bazkaria egingo dute Arantzazuko Ostatuan, musika, opari eta guzti.

ARANTZEN KOMISIOA

Duela 10-11 urte, 2.000 Arantxa elkartu ziren Arantzazun. Hego Euskal Herri osoan Arantxa guztiei gutun bana bidali zieten orduan.

Azkeneko ospakizuna duela lau urte egin zuten. Orduan ez zituzten gutunak bidali, iragarkiak jarri zituzten soilik, eta 400 inguru elkartu ziren. Arantzazuko bi jatetxetan batu ziren orduan. Aurten ere iragarki bidez eta ahoz aho zabaldu dute Arantxa ize-

nekoen eguna eta dagoeneko 200etik gora lagun apuntatu dira.

Domekako bazkarian elkarte bat, komisio bat, sortu gura dute datozen urteotako ospakizunak antolatzeke. Asmoa da herri bakoitzeko Arantxa bat edo bi sartzea komisio horretan. Helburuak dira, batetik, ahalik eta Arantxa gehien batzea eta bestetik, hurrengo antolaketak erraztea.

Oraindik joateko asmoa dutenek 30 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0170 54 1701019652. /OIHANA ELORTZA

Zertzelada

Arantzen komisio bat ere sortu gura dute domekako ospakizunean, hurrengo topaketan ahalik eta Arantxa gehien elkartzeko

BERGARA

Artekalea eta Arruriaga azaro erdialdean zabalduko dituzte

Arruriaga eta Artekaleko urbanizazio lanak bukatzeaz daude. Apirila ezkerreko trafikoa etenda egon ondoren, azaro erdialdeko zabalduko dituzte berriro Arruriaga eta Artekalea.

Ur hoderia aldatu eta espaloiak berritzeaz gain, bestelako apaingarriak jarriko dituzte Arruriagatik udaletxera doan tarte-

an. Aipatutako zatiak 177 metroko luzera du eta galtzada-harria bistan laga dute. 14.000 galtzada-harri inguru jarri dituzte Ozio enpresako langileek azken hilabeteotan. Orain, egun batzuk beharko dira galtzada-harria behar den moduan finkatzeko. Goenkaleko urbanizazioa egingo dute jarraian. /E.M.



E.M.

Langileek azken ukituekin dihardute egunotan.

ARETXABALET

Iralabarri plazara aldatu dituzte kultura etxea eta gainerako lokalak

Aldatu dituzte lekuz kultura etxea eta bertan zuden gainerako lokalak. Kultura etxea Iralabarri plazako 13. zenbakian dago, eta gainerako lokalak ere plaza berean kokatu dituzte: Arlutz Xake Taldearen egoitza, pintura eta eskulana egiteko lokalak, Gazteria Saila eta beste batzuk. Behin-behineko kokalekua izango da, eta urte bi egingo dituzte Iralabarri plazan, kultura etxe eta zine areto berriak egin bitartean. Hain zuzen, hilabete honetan bertan hasi gura dute botatzen Santa Kurtz kalean dagoen eraikina. /M.A.

ESKORIATZA

Autobidearen gaineko desadostasunak osoko bilkuran

Autobidearen Jarraipenerako Udal Batzordean daudenak -herriko talde politiko guztiak- ados egon dira lan egiteko moduan, baina martitzeneko ezohiko osoko bilkuran hainbat desberdintasun azalera irten ziren. Astelehenean batzordeak autobidearen gaineko idatzi bat osoko bilkuran aurkeztea erabaki zuen. Baina osoko bilkuran, EAJ, EA eta EBK idatziaren kontra bozkatu zuten, eta Elizate-etako ordezkariak alde. Kontra bozkatu zutenek esan zuten Bidegirekin elkarriketat egiteko ezinbestekoa zela ez onartzea. /I.B.

LEINTZ GATZAGA

Josu Iztuetaren diapositiba emanaldia gaur Kultura Etxean

Gaur, egubakoitza, arratsaldean Josu Iztuetak diapositiba emanaldia egingo du Kultura Etxean (19:00). Tolosarrak azken 20 urteotan egin dituzten bidaien berri emango du, eta horien erretratuak erakutsiko ditu. *Miloi bat kilometro lur azalean* izeneko lana erakutsiko du Iztuetak; hain zuzen, Nairobitarra izeneko autobusean egindako bidaien berri emango du. Orain dela 20 urte autobus zahar bat prestatu, eta Afrikan eta Ameriketara ibili ziren bidaiatzen. /X.U.

Gaztetxulo aldizkariak bost urte bete ditu eta autobus handi bat Euskal Herria zeharkatzen ari da egun hauetan. Eguenean, adibidez, Arrasaten apar-katu zuen. Aldizkariko zuzendariarekin egon gara, Alberto Irazurekin.

OIHANA ELORTZA

Bost urte egin ditu *Gaztetxulo*-k. Zorionak emateko modukoa da?

Bai, jakina, zoriontzekoa eta poztekoa da. Horrelako proiektuak sortzen direnean eta igerilekura salto egiten denean, inoiz ez da jakiten ito egingo den, goian geldituko den edo igeriketa saio polita egingo duen. Eta honek egin du.

Zertan asmatu duzuela uste duzu?

Proiektu honen aldeko apustua egin genuenean, berritzaileak izan ginen hainbat kontutan. Aldizkaria planteatzerakoan, erabaki behar izan genuen zeintzuk izango ziren *Gaztetxulo*-ko gaiak, eta hori jakiteko makina bat inkesta egin genuen unibertsitate eta ikastetxeetan. Gazteek eurek eskatzen zuten aldizkaria diseinatu genuen hasieratik, eta horixe izan zen, agian, aldaketaren motorretako bat.

Eta asmatu egin dugu era guztietako gazteengana heltzeko moduan. Gazteek askotariko zaletasunak dituzte eta politikoki ere batzuek era batera eta besteek bestera pentsatzen dute. Irakurleen artean ere, batzuek gazteak dira eta besteak ez horren gazteak.

Gazteengan pentsatu arren, akaso arazoetako bat izango zen gaztearen adina finkatzea, ezta?

Nerabetasunaren arteko mugan ez da horrenbesteko arazorik izaten. Arazo gehiago izaten dira 28-29-30 urte dituzten artean. Denak sentitzen dira gazte, baina burua ez dute 15-16koek duten tokian. Adibidez, sexuaz aritzen garenean, ez da berdina 15 urteko gazte bati edo 30 dituen bati zuzendu. Azkenean, koktelera moduko bat da *Gaztetxulo*, eta denetarik eskainiz, nor berea aurkitzen du; batzuek sexuan aurkituko dute eta beste batzuek musikan.

Gaiak, beraz, gazteek eskatutakoak dira?

Aldizkaria diseinatzerakoan, ikusi genuen euskal prentsan ze hutsune zegoen eta zein aldizkari mota gurean ez ziren egiten eta atzerrian zeintzuek zuten arrakasta. Horrekin batera milaka inkesta egin genituen Kike Amonarrizen laguntzarekin. Era horretan jakin genuen zein aldizkari irakurtzen dituzten gazteek, eta gai zerrenda luze bat eskainita, zer lantzea nahi zuten. Eta inkesta horretan agertu ziren gaur oraindik ditugun gai nagusiak: musika, sexua, Internet, gizarte mugimenduak, gaztetxeak, euskara eta zinema, besteak beste.

Irakurtzeaz gain, aldizkaria egiten ere kolaboratzen, laguntzen dute Euskal Herriko gazteek?


Batzuek bai.

Non eta nola banatzen duzue?

Euskal Herri osoan banatzen dugu, bai kioskoen bitartez eta baita harpidetza bitartez ere.

Zenbat harpidedun dituzue?

6.000 inguru. *Irutxulo* astekariaren barruan sortu zen *Gaztetxulo*. Hasieran Donostian soilik banatu genuen, *Irutxulo*-ren harpidedunen artean. Euskal Herri-rako saltoa egin genuenean, batzuk gustukoa zutelako harpidetu ziren, beste batzuk ezagutzen zutelako eta beste asko



GAZTETXULO

Alberto Irazu

Gaztetxulo ALDIZKARIKO ZUZENDARIA

“Urte batzuk barru ikusiko da gazteendako hiztegia egiten ari garen edo ez”

GAZTEENDAKO ALDIZKARIA

“Gazteendako aldizkaria egin nahi genuen, eta eurei galdetu genien zein gai nahi zuten jorratzea; makina bat inkesta egin genuen, eta asmatu egin dugu”

GAZTEENGANA HELTZEKO

“Erdia euskaraz eta beste erdia espainolez egiten da hemen, eta ahalegindu behar dugu hizkuntza bizia, ironikoa eta gaztea sortzen”

etxean gazteak zituztelako. Gainera, prezioa ere berezia zuen.

Eta nola ezagutarazi duzue Donostiatik kanpo?

Hainbat formula erabili ditugu harpidetzak lantzeko, ikastetxeekin egiten diren multzokako harpidetzak, adibidez. Hainbat herritako euskara teknikariek ere lanean ari gara *Gaztetxulo* banatzeko, eta sarri egiten ditugu harpidetza kanpainak.

Debagoienean ere ezagutzen gaituzte eta autobusa martxan jarri dugun bakoi-

tzear izan du geldiunea Arrasaten, oker ez banago.

Aste honetan bertan abiatu da autobusa, ezta?

Domekan, Nafarroa Oinezen izan ginen, kondoiak banatzen. 7.500 banatu genituen eta batek baino gehiagok, gainera, eskerrak eman zizkigun. Astelehenean Donostian izan ginen, K belaunaldiko musikariek. Harrituta gelditu nintzen gazteek jarri zuten interesarekin eta ze natural eta eroso egin zizkieten musikaren gaineko gal-

derak eta iritziak. Bukaeran, futboleko jokalariren pare ibili ziren gonbidatuak, autografoak sinatzen. Martitzenean, bertsoaritzaz eta rapa izan ziren gai nagusiak Baionan eta giro polita sortu zen, benetan. Eguaztenean, Zornotzan izan ziren Iban Garate eta Ainhoa Garai aktoreak eta gazteak zeharo hunkitu ziren euren dako izarrak diren gazte horiek horren hurbil ikusita. Eguenean, antzerkiak hitz egin genuen Gasteizen eta gaur, egubakoitza, Iruñean izango gara Nafarroako gazte ezagun askorekin batera. Beste hainbat hitzordu ere izan ditugu asteon.

Bost urte igaro eta gero, *Gaztetxulo* bideragarria dela ikusten duzue?

Bai, bai. Euskal prentsan, gainerako beste tokietan bezala, dirulaguntzen mende gaude; dirulaguntzak murrizten badizkigute eta kolpe handiak jotzen badizkigute, erori egingo litzateke ziurrenez. Era-kundeen laguntza beharrezkoa izaten jarraitzen du, eta alde horretatik, normaltasun falta barruan bizi gara, frantsesezko eta espainolezko produktuek bizi ez dutena. Beste arloei begiratu gero, berriz, ikusi beharko litzateke beste herrietan badauden horrenbesteko arrakasta duten produktuak.

Publizitatea ere jasotzen duzue?

Hasierako beste galdera bat izan zen hori, ea diskoetxeek, instituzioek edo arropa dendek publikitatea sartuko luketen *Gaztetxulo*-n. Kalitateko produktua ikusi dute denek eta horrek erakarri egin ditu.

Uste dut klabea kalitatea dela eta horrek berarekin dakarrela beste guztia.

Gazteen gaiak jorratzeaz gain, gazteen hizkuntza ere landu behar izan duzue euren gana heltzeko?

Uste dut hutsune handia dagoela gai horretan. Gazteei zuzendutako euskarazko produktu dezente daude egun: *Matraka*, *Xirika*, *Euskadi Gaztea*, *Gaztetxulo*...

Gaur egungo egoera ez da duela 10 urtekoa eta ikusi beharko da hemendik urte batzuetara ea orain asmatzen ote ari garen euskarazko hiztegi bat, argoten hiztegi bat.

Gazteek ere badute joera espainolez hitz egiteko.

Bai, hori ezin daiteke ezkutatu. Gazte askok espainolera jotzen dute gauza asko esateko. Guk saihestu egiten dugu hori edozein modutan ere, eta saiatzen gara *enpatia* sortzen gaztearekin gure hizkera ere gaztea izanda.

Nola heltzen da horretara?

Formula berriak bilatu behar direla uste dut. Eta errotari eragin beharko diogu gai horretan.

Kike Amonarriz eta Joxera Gartzia horixe ari dira gai hori aztertzen. Uste dut oso mesedegarria izango litzatekeela, bizi dugun egoera anormal honen beste ondorio bat horixe delako, erdia euskaraz eta beste erdia espainolez esaten dugula. Ahozkoan eragin nabaria du horrek, ez horrenbestekoa idatzikoan, baina hizkuntza bizia, ironikoa eta gaztea sortu beharko litzatekeela uste dut, eta ahalegindu egin behar dugula horretan.

Hemendik aurrera, zer?

Orain bertan, nahiko lan dugu autobusak bere buelta bukatzearekin. Ikusiko dugu zenbaterainoko indarra gelditzen zaigun itzuliaren ostean.

Baditugu proiektu batzuk buruan. Adibidez, web gunea egin nahi dugu orain arte egindako lana Interneten ere sartzeko. Baina orain arte bezala jarraitu nahi dugu, betiere gauzak hobetuaz.

Gazteekin interaktibitate handiagoa lortu gura duzue webgunearrekin?

Bai, horixe nahi genuke. Horrez gain, hala ere, orain arteko ondarea, 55 ale, sarean sartu nahi dugu, gazteek eskuragarri izan dezaten modu errazean, eta egin dugun lanari ahalik eta etekin handien ateratzea.

Gutunak

Autobus zerbitzua
Gatzagarendako!

Leintz Gatzagako gazteok idazten dizuegu, autobusari buruz ditugun kezak irakurleei azaltzeko. Orain dela egun gutxi, gure bailaran, auto gabeko eguna izan zen. Gatzagarrok, aldiz, ezin izan genuen parte hartu ez daukagulako beste garraio biderik.

Herri txikia izan arren, beste herri batzuek dituzten eskubide berdinak nahi ditugu. Autobus batek gure herriaren bizitasuna suspertuko luke, horrela gatzagarrok ere gure herritik mugitzeko beste aukera batzuk izango genituzke eta nahi duenak gure herrian ditugun altxorrek bisitatzeko aukera izango luke, museoa, herriko historia...

Denontzako baliagarria den gauza bat eskatzen dugula iruditzen zaigu. Herritar batzuek autorik ez daukagunez, oso zaila egiten zaigu alde batetik bestera ibiltzea.

Horrenbestez, autobusarekiko gure beharrak azaltzen ditugu:

Gazteak: Gazteondako autobusa baliagarria izango litzateke independentzia lortzeko, ikastetxera joateko, gauean festan joateko eta, aldi berean, gure bizitza ez arriskatzeko.

Helduak eta erretiratuak: medikura joateko, Gatzagako kutzazaina ez dabilen bitartean, dirua ateratzera joateko, erosketak egiteko.

Umeak: eskolaz kanpoko jardueretara joateko eta etxera itzultzeko aukera izan dezaten, eta aldi berean, gurasoak lasai egon daitezen, eta txikitatik independentzia zer den jakin dezaten.

Azkenik, esan nahi duguna da gatzagarrok ez dugula gehiegi eskatzen, bakarrik, bailarako beste edonork daukan aukera izatea. Ez dugu Gipuzkoako isatsa izan nahi, baizik eta Gipuzkoan barne murgilduta egotea.

Herritarrei amorrutik gehien ematen diguna da, Arlabango portuan istripu edo beste mota bateko arazoa izaten denean, autobusak, kamioiak eta bestelakoak Gatzagako errepide zaharretik pasatzen direla; hortaz, ez digu balio autobus enpresek eta txoferrek esaten digutena. Hau da, bidea oso estua dela eta Goierriko zubia oso baxua denez, ez direla bertatik pasatzen. Hori horrela bada, istripua izaten denean, Arlabango portuan bertan geldi daitezela.

Gogoratu gura dugu orain dela urte batzuk autobusa Gatzagatik pasatzen zela eta Goierriko zubia txikiagoa zela. Berau zabaltzeko lanetan hasi zirenean autobusak Arlabanetik pasatzen hasi ziren, eta ordutik ez ditugu hemen berriz bueltan ikusi.

Dagokionari dagokiola erabaki hau hartzea, har dezala eta ea gatzagarrok gura nahia laster beteta ikusten dugun.

GARAZI OROBENGOA,
GATZAGAKO GAZTEEN IZENEAN
Leintz Gatzaga

Arrasateko alkate
Lakuntza jaunari

Urte asko dira mota askotako hitzaldiak eta ekitaldiak antolatzen nabilela eta mota askotako hitzaldietara eta ekitaldietara noala. Eta beti planteatu izan diet hainbat afiliatutako alkateei, irisgarritasunaren gaineko diskurtsoekin ahoa betetzen duten bitartean, ez dela onargarria Arrasaten erabiltzen den ohiko hitzaldi-aretoa Monterrongo goreneari dagoena izatea.

Orain dela urtebete baino gehiago eskatu nion elkarrizketa bat alkate jaun Lakuntzari; izan ere, hura dagoenetik "irisgarritasuna" zaildu duen faktore bat dago: ez du uzten erabiltzen, Udaleko osoko bilkuren aretoa udal-taldeko kideek antolatutako hitzaldi eta ekitaldiak ez badira.

Orain dela egun batzuk (kontuan hartuta oraindik egiteko daudela kultura etxe berria, Monterrongo erakusketa aretoa hitzaldi-areto izateko egokitzeko dagoela, Emakume Txokora iristeko igogailua hondatuta dagoela), beste elkarrizketa bat izan dut Lakuntza jaunarekin, osoko bilkuren aretoa erabiltzeko baimena eskatzeko, hura da-eta oraingoz, leku desegokien artean egokiena. Baita ere esan nion udal areto hori bakarrik zinegotziek babestutako erakundeek erabili ahal izate hori kazikeen jarrera iruditzen zaidala.

Bada, kontua da "nire kapritxoia dela osoko bilkuren aretoa erabili nahi izatea". Halaxe esan zidan alkate jaunak. Bere jarrera berretsi egin zuen eta lehen esandako lokalez gainera, esan zidan erabil genitzakeela HHIren (Helduen Hezkuntza Iraunkorra) lokalak. Emakume Txokoko igogailua zergatik ez dabilen ez esplikatzeaz gainera, galdetu zidan ea helarazi nion nire kexu hori lehenagoko alkateari (oraindik alkatetza prestu hartan izango da nire idatziren bat).

Eta hemen geldiu netxo bat egin gura dut:

1- Nahiz eta alkatea Arrasaten bizi den aspalditik, ez du ezagutzen herri honen errealitate soziopolitikoak. Ez du politologoa izan behar Axeri-rengandik hasi eta Txiron-engana arteko alkateekin izan ditudan kritika eta desadostasun publikoen berri izateko.

2- Susmagarria pentsatzen zait besteek egin dutenaren atzean babestea bere burua justifikatzeko. Orain alkatetza zurea da, Lakuntza jauna, eta ez da zilegi baloia kanpora botatzea. Edozelan ere, gogorarazi behar da osoko bilkuren aretoa Ardantzarekin, Axerirekin, Lotiriekinekin eta Txiron-ekin erabili izan dela.

Elkarrizketatik atera nintzenez, galdetu eta baieztatu nuen HHI gaueko bederatzia arte eskolak daudela eta gainera sarrerako eskailerak ia metro erdi neurtzen duela.

Zalantza bat ere planteatu gura dut: gainerako zinegotziei ondo pentsatzen zaie eurek han antolatu ahal izatea euren "taldetxoak" VIP pertsonaien moduan eta gainerako herritarrei ez uztea osoko bilkuren aretoa erabiltzen?

Orain esanguratsua iruditzen zaidan anekdota bat gogoratu dut: Lakuntza jaunarekin berba egin nuen lehen aldia 2003ko Errozio egunean izan zen, justu kargua estreinatuta berri zuela. Kontatu nion zenbat kostatu zitzaidan iristea San Andrestik Eroskiraino nire motor elektrikoarekin. Ez zuen ulertzen zer esan gura nuen, eta hori nik ozen eta garbi berba egiten dudala! Emazteak esplikatuta behar izan zion. Hurrengo elkarrizketa hari (emazteari) eskatuko diot, gaizki-nahirik ez eragiteko.

MALEN ERRASTI (ESK-KOA ETA
EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA
SALATZEKO PLATAFORMAKOIA)

Arrasate

Maritxutan zergatik?

Arrasateko Maritxu Kajoi txosna Abatzordetik, urriaren 7an gertatutakoari esplikazio bat aurkitu nahi diogula eta, gutun hau zuzentzen dizuegu.

Maritxu Kajoi eguneko goiz-eguerdi partean, herria jai giro paregabean zegoela, gazte talde bat jai gunea prestatzen ari ginen, arratsalderako dena prest egon zedin.

Gure burua kañero, kalimotxo, hozkailu eta bestelako instalazioan murgildurik zegoenean, burua altxatu eta 6-7 ertzain ikusi genituen txosna gune erdian bertan. "Zer egingo dute hauek hemen?" izan zen han geundenetako bakoitzari burura etorritako galdera. Hiru gazte beraien ondoan zeuden eta ea zer gertatzen zen galdetzerako gerturatu ginen bertan geundenok.

Hiru gazteak identifikatzen ari ziren pankarta bat eramateagatik. Bertan, Euskal Herriko gazteek beste errealitate sozio-politiko bat behar dugula eta, sintesi bat irakur zitekeen: "Gazteok Euskal Herria eraikitzen segiko dugu". Ez genuen gertatzen ari zena jai giro haren lotzen eta, horrez gain, ertzainak gure lana oztopatzen ari ziren. Baina egoera hori luza ez zedin isilik mantendu ginen ertzainek ospa egin zezaten eta guk geure lanarekin jarraitu ahal izateko.

Hiru gazte haiekin bukatu eta pankarta ostikoz autora sartu zutenean, ospa egingo zutela ematen zuen. Gure buruan mila galderekin erantzuna bilatzen zuten, zergatik? Pankarta ostikoka erabili! Hori balentria hori.

Momentu hartan ertzain haien mandoa txosna inguruetan zebilen, mesfidati alde guztietara begira. Antza ikusitakoa ez zitzaion batere gustatu, une horretan lanean jarraitzen zuten bi gazte baka-

rrak hurbilarazi baitzituen, txosna baten fondoan zegoen pankarta kentzeko esanez, eta beste bi identifikazio burutuz.

Guk ez genuen sinisten gertatzen ari zena eta gutako bat beraiengana zuzendu zen esplikazio eske. Beraien esana laburra izan zen eta agindu batez erantzuna: "A ver tú, listillo, ven aquí y quita esta pancarta también".

Gazteak, eztabaida txiki baten ostean, esanari men egiteari ekin zion eta, ertzainen aurpegia ikusita, egoera hori gustuko zutela ikus zitekeen; "¿Quién es la autoridad?" eta antzeko galderak egin zituzten-eta. Gazteari, pankarta kendu eta txosnatik irteterakoan, identifikazioa eskatu zioten. Honen erantzuna ezezkua izan zen, beraien esandakoa bakarrik egin zuela argudiatuz. Beraien erantzuna kontundentea eta oldarkorra izan zen: "Te identificas porque lo digo yo, o vienes con nosotros". Gazteak berriz esana bete eta identifikazioa eman zien. Ondoren joan egin ziren balantze triste bat utziz. Aurretik egindako lan dena eraman zuten (txosnetako fondoak, dekoratzeko eta gatazka politiko batean dagoen herri bat garelako erakusteko zeuden pankartak,...) eta gainera bost identifikazio, horiek ekar ditzaketen isunen eta bestelako mehatxupean.

Gertatutakoaz hitz egiten ari ginela, herritar batek ertzainak herriko pankarta denak kentzen ari zirela (Cesparen laguntzaz) eta Irati herriko tabernara sartu zirela esan zigun.

Lerro hauetan irakurri dituzuen gertaerak galera batzuk plazaratzera behartzen gaituzte. Nork agintzen die ertzain hauei horrelako jokabideak izatera? PNVk zein erantzukizun du gertaera hauetan? Udalak (Cespa) zergatik laguntzen die? Maritxutan zergatik?

LANDER EGINO SAGASTA
(MARITXU KAJOI TXOSNA BATZORDEA)
Arrasate

Zorionak!

Dagoeneko ohituak egongo dira zorionak jasotzen, baina beste behin ere: Zorionak, Gaztelupeko Hotsak eta zorionak, Espaloia Kafe Antzokia!

Lan bikaina egiten duzue bakoitzak zuen alorrean eta oraingoan elkarlanean eskaini diguzue jaialdi bikaina ikus eta entzuteko aukera: Lauaxetaren gainean 11 musikariek eginiko diskoaren aurre-estreinaldia. Martitzenean egon nintzen Elgetan eta primeran pasatu nuen, gozatu ederra hura: sekulako aretoa, soinu bikaina, argi politak, musikari bikainak taula gainean...

Arrasaten eta Bergaran, nora begira gaude? Horren moduko aretorik ezin eduki? Tamalgarria!

IÑAKI FERNANDEZ
Arrasate

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberebar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano eta
Itxaso Berezibar
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi



KIA MOTORS

**ESKAINITZA
BEREZIAK**

Km 0 ibilgailuetan



KIA RIO Gasolina/Diesel
11.800 eurotik aurrera*



KIA CERATO Gasolina/Diesel
11.300 eurotik aurrera*



KIA PICANTO 1.0 / 1.1
7.300 eurotik aurrera*



KIA CARNIVAL Gasolina/Diesel
19.300 eurotik aurrera*



KIA MAGENTIS 2.0
17.300 eurotik aurrera*



KIA OPIRUS V6
29.300 eurotik aurrera*



KIA CARENS Gasolina/Diesel
14.300 eurotik aurrera*



KIA SPORTAGE Gasolina/Diesel
18.300 eurotik aurrera*



KIA SORENTO Gasolina/Diesel
24.300 eurotik aurrera*



Tecnocar

Honda eta Kia banatzaile ofiziala

Erakusketa eta tailerra

TECNOCAR GIPIZKOA

Araba etorbidea z/g - Arrasate - 943 79 22 67 - Faxa: 943 71 27 38

Adi!

- 3 urteko garantia
- 0 km aukera bereziak

HONDA
The Power of Dreams



HONDA FRV
20.600 eurotik aurrera*



HONDA JAZZ 1.2 / 1.4
11.300 eurotik aurrera*



HONDA CRV
27.300 eurotik aurrera*

**ESKAINITZA
BEREZIA**

HONDA CIVIC gama osoan



HONDA CIVIC (3 ate) Gasoli./Dies.
13.300 eurotik aurrera*



HONDA CIVIC (5 ate) Gasoli./Dies.
15.300 eurotik aurrera*



HONDA HRV
17.700 eurotik aurrera*

HONDA ACCORD

Munduko
diesel motor onena
bere kategorian



HONDA ACCORD
22.950 eurotik aurrera*



HONDA ACCORD Tourer
26.950 eurotik aurrera*



HONDA S2000
41.750 eurotik aurrera*

Eskoriatzak hartuko du erreleboa

Domekako mendi irteerarako ez dute espero joan den urteko besteko lokatzarik (09:30)

XABIER URTZELAI

Oñatiko eta Gatzagako mendiko bizikleta irteerei Eskoriatzakoak hartuko die oraingo asteburuan erreleboa. Domekarako, gutxienez, 200 lagun espero dituzte, joan den urtean eguraldi petrala eginda ere 170 lagun gerturatu ziren-eta Eskoriatzara.

Eta horiek guztiek leporaino lokaztuta amaitu zuten, Marinetik Jarindora arteko zatian besterik ez zegoelako. Horrek zaildu zuen mendi zeharkaldia, nahiz eta ibilbidea ederra izan. AP-1 autobideko lanak direla-eta, antolatzaileek beste ibilbide bat gertatu dute domekako irteerarako, hori ere ederra. Gainera, aste barruan ibili dira gora eta behera, eta txarra egiten badu ere, ez dela horrenbesteko lokatzarik egongo esan digute.

ARETXABALETA ALDERA

09:30ean izango da irteera, baina izena emateko lehenago joatea komeni da (federatuek 7 euro, gainontzekoek 10 euro). Lehenengo kilometroak lasaiak izango dira. Aretxabaletaraino jaitsi, eta handik Urkulurako bidea hartuko dute.

Eta lasai jarraituko du ibilaldiak; gora, baina poliki-poliki: Arkarazora, Erañara eta Bolibarrera. Seguru mendiko bizikleta zaleek eskertuko dutela horrela hastea, Oñatiko eta Gatzagako zeharkaldietako lehe-



Joan den urteko Eskoriatzako irteerako argazkia. Helmugan maillotak ez zeuden horren garbi.

GOIENKARIA

38 kilometro izango ditu zeharkaldiak; lehenengoak eta azkenak nahiko lasaiak izango dira

nengo kilometroak bestelakoak izan ziren-eta.

Estutzea gura duenak, baina, egon dadila trankil, Bolibarretik Uxarrera egongo dira-eta lehe-

15. eta 29. kilometro artean egongo dira malda gogorrenak, Uxarrera eta Leizargaratera igotzeko

nengo malda gogorrak. 300 metro baino gehiago igota (750 metrora) Dominagako baserrira jaitsi, eta bertan egongo dira jatekoak eta edatekoak (22. kilometroan izan-

go da). Ez da komeniko, baina, hamarretakoa egiterakoan hoztea, segidan etorriko dira-eta zeharkaldiko aldapa gogorrenak, Leizargarateraino eramango dituztenak (950 metrora). Eta handik aurrera, errekupeatzeko behar beste denbora, azkeneko 10 kilometroak jaitsierekin gozatzekoak izango dira-eta. Leizargaraten, Karoi bidea hartuko dute, handik Mandubidera jaitsi eta Peñakulotik Mendiolara joateko. Eta Mendiolatik Eskoriatzara, paseoa.

Kirolabur

BERGARA/MOTORRA

Joan den asteburuan egin zuten Iruñean Vasco-Navarroko Txapelketako zortzigarren Supermotard moto lasterketa, eta, Ramon Anbroy bergararra hirugarren sailkatu zen. Joan den asteko probarekin amaitu dute denboraldia, eta sailkapen orokorra azaroan emango dute.

OÑATI/ESKUBALOIA

Domekan derbia jokatu dute Lehen Territorial Mailako Arrikruz Oñatiko Kobak taldeak eta Ford Mugarri Arrasatek (12:00etan, Zubikoan). Kategoria horietan epaile gutxierekin dabilta, eta horregatik dagoneko hainbat norgehiagoka atzeratu dituzte. Aloñak domekan jokatu du lehenengo partidua.

ESKORIATZA/ARETO F.

Lehen Nazional Mailako laugarren jardunaldia jokatu dute Eskoriatzako mutilek asteburuan. Domekan, Beti Arin taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak. Eskoriatzarrak taularen erdialdean daude, bedertzigarren postuan, lau punturakin. Asteburuko kontrarioa, berriz, azkena da sailkapenean.

DEBAGOIENA/FUTBOLA

Aretxabaletak Zestoaren bisita izango du domekan Ibarrran (16:30). Sailkapenean ibarreko taldeen artean ondoen dabilen Aloña Mendik bolada onari jarraipena eman gura dio. Irun hartuko dute Azkoagainen (domekan, 16:30). Pasaiara joango da Mondra bihar (17:00).

ASPEPELOTA Goi mailako pilota ikuskizuna

Mtz de Irujo - Eulate / Del Rey - Pascual

Agirre / Bengoetxea VI.a

Lau t'erdiko Txapelketa

Berraondo - Zubieta / Baleztena - Galartza VI.a

- **Eguna:** igandea, urriaren 23a.
- **Ordua:** 17:00etan.
- **Lekua:** Bergarako Udal Pilotalekuan.



aspepelota.com

Erreserbak baita interneten ere: www.aspepelota.com

Mendiexpo azoka, gaurtik domekara arte

X.U.

Ibarreko mendizaleek badute hitzordua asteburuan, gaurtik hasi eta domekara arte egingo dute-eta Irungo Ficoba erakustazokan Mendiexpo 2005. Aurtengoa, gainera, joan den urtekoa baino azoka osotuagoa antolatu dutela esan digute antolatzaileek. Helburuak, joan den urtekoak: Batetik, mendizaleetasunari lotutako sektore guztiei erakuslehoia eskaintzea, euren produktuak erakutsi ditzaten; eta bestetik, mendizale guztiendako jai erraldoia antolatzeko.

GUZTIRA 67 ERAKUSLE

Mendiexpora gerturatzen direnek izango dute zer aukeratu, 67 erakusle bilduko dituzte-eta azokan: kirol materiala; kanpin materiala; izadia eta ekologia; alojamentuak; material teknikoak; bidai agentziak; eski estazioak... Bururatzen zaizuen guztia. Dena ez da izango, baina, erakusketa, Mendiexpokoek esandako moduan, jai erraldoia



MENDIEXPO

Mendiexpoko sarrerak 3 euro balioko du.

antolatzeko da-eta helburuetako bat. Hala, rokodromoak, tibetar zubiak eta tirolinak, Goi Atlasetako kanpaleku bat, Marokoko Atlas mendikateko argazki erakusketa, boulder txapelketa...

Horrekin batera, mendizale eza-gunak gerturatuko dira azokara, berbaldiak, mahai inguruak edo ikus-entzunezkoak eskaintzera. Bihar eta etzi, 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

Gazte ikastaroak



GRAFOLOGIA

Irene Ibarrenaren eskutik

- Egutegia: azaroaren 10etik abenduaren 1era
- Noiz: eguenetan
- Ordutegia: 18:00 - 20:30
- Matrikula: 20 € / 10 € ikasle eta langabeek



MALABARRAK

Zirku teknikak: diaboloa, akrobaziak, mazoak, makilak, contact...

Joseba Iglesiasen eskutik

- Egutegia: azaroaren 9tik 30era
- Noiz: eguaztenetan
- Ordutegia: 18:00 - 20:00
- Non: Gaztetxean
- Matrikula: 20 € / 10 € ikasle eta langabeek



ZERAMIKA

Loixe elkarteak antolatua

- Egutegia: urritik ekainera
- Noiz: astearteetan eta eguenetan
- Ordutegia: 19:00-21:00 (umeen taldea: 17:00 - 18:30)
- Matrikula: hileko 30 €

Izenemateak: 943 77 00 65

INFORMAZIO ZEHATZAGOA: GAZTE BULEGOA • 943 77 00 65 • gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila ■

HARATEGI HAUETAN SOILIK!

ANTZUOLA

- Gabilondo Arregi harategia (A)
Kalebarren 14

ARAMAIO

- Bixente L. Azpilikueta harategia (A)
Bixente Goikoetxea plaza 8

ARRASATE

- Landaluze harategia (A)
Iturriotz 7
- Jose Mari Salegi harategia (B)
Olarite 20
- Azpilikueta harategia (A)
Bañez doktorea 10
- Azpilikueta harategia (A)
Erguin 12
- Kortaberri harategia (A)
Antxo Abarka 1

BERGARA

- Andres Mujika harategia (A)
Domingo Irala 5
- Bixain harategia (A)
Azoka plaza 5-6 postuak
- Aldai harategia (B)
Espoia 12

ESKORITATZA

- Zubia harategia (B)
Santa Ana 11

OÑATI

- Antxon harategia (A)
San Lorenzo 5
- Tarsicio harategia (B)
Portu 2
- Garai harategia (A)
Maiatzaren Lehena plaza 2
- Super BM Oñati harategia (B)
Olekua 8

(A) ARTISAUAK: Baimendua izateaz gain, Euskal Okelaren eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

(B) BAIMENDUAK: Euskal Okela saltzeko Hartegi Baimenduak.




EUSKAL OKELA

“Ez da garestiagoa, eta bai hobea”

Eusko Labela duen bakarra



**BERRIKUNTZAK:**• **PROGRAMAZIOA**

Etenik gabeko programazioa
(13:15 / 00:15)

• **INFORMATIBOAK**

Orduoro eta inor baino lehenago
(laurden gutxi guztietan)

SAIO BERRIAK:

- **16 MM:** Film laburren saioa
- **MOTZEAN:** Herritarrei elkarrizketak
- **DIDJERIDU:** Gazteendako saioa

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

- Etenik gabeko programazioa
- Informatiboak orduoro
- Programazio berria



Ikustekoa!

Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko urriaren 21a

Kultura
eta
aisialdia



Urriaren
21etik 28ra



Lasarte eta Basarri
bertsotan. Argazki hori
erakusketan dago.



MANUEL LASARTE GANDIAGA TOPAGUNEAN

ERAKUSKETA ZABALDU BERRI DUTE

Manuel Lasarte bertsolari eta idazleari omenaldia egin gura izan diote betiko adiskide batzuek. Hala, *Manuel Lasarte: bizitza eta sorkuntza* erakusketa ipini dute Arantzazun, Gandiaga Topagunean. Joan den eguaztenean inauguratu zuten, ekitaldi jendetsu eta hunkigarri baten. Bertsozale eta, oro har, euskaltzale guztiei dago zuzenduta. Gandiaga Topaguneko lehenengo kultura ekitaldi publikoa da erakusketa hori. /14 LEIRE KORTABARRIA



Erakusketako bi panel.

ERAKUSKETAK/ 'MANUEL LASARTE: BIZITZA ETA SORKUNTZA'

Lasarte eta Gandiaga, dohainak lotuak

HITZEN MAISU BATI, MANUEL LASARTE BERTSOLARIARI, OMENALDIA EGIN DIOTE ERAKUSKETA BATEKIN. GANDIAGA TOPAGUNEAN DAGO

LEIRE KORTABARRIA

Manuel Lasarte: bizitza eta sorkuntza delako erakusketa zabaldu dute Bitoriano Gandiaga Topagunean. Topaguneko lehen erakusketa da: hitzen dohaina zuen poeta haren omenezko lekuan, dohain berdina duen bertsolari eta prosalaria omentzen ari dira.

Joan den eguaztenaz geroztik, Manuel Lasarte bertsolariaren berri dutenek eta zale direnek zein ezagutu gura dutenek aukerako erakusketa dute Arantzazun, Gandiaga Topagunean. Lasarte ondo ezagutzen duten aspaldiko hiru lagunak miresmenez eta maitasunez antolatu dute erakusketa: Iñaki Hernandezek, Iñaki Zubizarretak eta Julian Belokik.

Bertsoengatik da batik bat ezagun Lasarte, baina prosalari bikaina ere badela erakusten du eguaztenean aurkeztu zuten liburu batek, Lasarteren zortzigarrenak. Plazarik plaza ezagutu dituen gizon nabarmenen erretratuak idazten zituen Lasartek, eta *Plaza-gizonak* izenburuarekin batu ditu horiek Antonio Zabalak. Lasarteren liburuak ere erakusketan daude.

Lasarteren bizitza eta sorkuntza bat joan dira –bizitza zaila izan du, eta hori askotan agertu da bere bertso edo prosan– eta hori erakusten dute sei panelek, *bizitza; eskola, lana eta osasuna; bertsolari lagunak; plaza gizona; sormena;* eta *omenaldiak* izenekoek. Leitzako bertsolariaren hainbat bertso emanaldi nabar-

men ere batu dituzte, eta panel interaktiboan bidez aukera daitezke entzuteko; horrez gain, Jesus Francok 1981ean egindako Manuel Lasarte filma ere ematen da, eta baita Euskal Telebistak Lasarteren bertso eta kontaktuzunekin eta hainbat bertsolarien hitzekin egin duen bideoa ere. Erakusketa osatzen dute Lasarteren etxeko lanabes eta oroigarri batzuek.

Zabalik dago erakustaldia abenduaren 11ra bitartean, asteburuetan, urriaren 31n, azaroaren 1ean eta, abenduaren 3tik 11ra, egunero.

TOPAGUNeko LEHEN EKINTZA

Gandiaga Topaguneak hartzen duen lehenengo erakusketa da; publikoari irekita dagoen lehenengo kultura ekitaldia, alegia. Manuel Lasarteren gaineko erakusketa lehenengoa izatea esanguratsua da. Koldo Mitxelena Kulturuneak lagundu du antolatzen, eta hauxe diosku horko arduradunak, Frantxi Lopez Landatxek: “Gandiaga Topagunea oso leku aproposa da, Gandiagak eta Lasartek hitzarekin joko egin dutelako, batak poesia kultuaren barruan eta besteak herriko bertsoekin. Gandiaga Topaguneko ekitaldiak erakusketa honekin hastea guretako plazera eta ohorea da”. Helburua da erakusketa Euskal Herriko leku askotara eramatea gero.

Gandiaga Topagunea leku zabaldu berria da, baina “oso gune egokia” izan daiteke erakusketak egiteko, “baita handiagoak ere”, diosku Lopez Landatxek.



Manuel Lasarte; Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Antonio Zabala eta Telesforo Zuriarrain, erakusketa aurkezten ari zirela.

“Eskerrik asko, bihotzez, guztioi”

Manuel Lasarte, omendua, burukominez zegoen eguaztenean –tratamendu gogor batekin dabil– eta ezagun zen nekatuta zegoela, baina “aspirina batzuk hartu” eta Arantzazura joatera animatu zen, seme-alabek lagunduta; han, komunikabideak ere ohiko adeitasunez hartu zituen.

Berba gehiago egiteko unea gero, aurkezpenean, etorri zen, eta ez zituen berba asko behar izan Lasartek hitzekin duen dohaina

eta, are gehiago, izaera apala, erakusteko: “Oso pozik nago; eskerrik asko, bihotzez, guztioi. Ez zaituztet inoiz ahaztuko. Gazteak badatoz, zaharrak joango garen bezalaxe; ni konforme. Jarrai dezagun elkarriz maitasuna ematen ahal dugun arte”.

Esker emate hori txaloz eta txaloz eskertu zioten Arantzazun bildutako lagunak eta maite eta miresten dutenak; tartean, bertsolari askok.



IÑAKI ZUBIZARRETA

LASARTEREN LAGUNA-ANTOLATZAILEA

Lasartek dena biltzen du bertsolari moduan: kantari ederra da eta, batez ere, berezko sortzaile izugarria. Bertsoa eta hitza berez irtetzen zaizkio, iturritik ura bezala. Idazten du aurrez aurre hitz egiten balego bezala, eta orain bere zortzigarren liburuak aurkeztu dugu. Euskal Herrian gutxiak dute hain emari handia.



IÑAKI HERNANDEZ

LASARTEREN LAGUNA-ANTOLATZAILEA

Aspaldiko laguna dugu Lasarte Iñaki Zubizarretak, Julian Belokik eta Ahirurok; horregatik, kapritxo egin dugu lan erakusketa antolatzeko, eta, lan handia izan bada ere, gustuko lekuan, aldarrik ez; gainera, erraztasun guztiak eman dizkigute. Ilusio handiarekin inauguratu dugu.



ANTONIO ZAVALA

‘PLAZA-GIZONAK’ LIBURUA PRESTATU DU

Lasartek idatzitako artikulak batzen ditu liburuak. Denondako da: erraza eta euskara jatorrean; euskaraz pentsatutako euskara da. Orain asko dabil erdaraz pentsatutako euskara. Ezagun du amaren bularretik daukala euskara, eta oso ondo erabiltzen du, eta aberasten joan da. Euskara garbi, aberats eta jatorra du.



JULIAN BELOKI

LASARTEREN LAGUNA-ANTOLATZAILEA

Hiru adiskideok Manuel Lasarterekin aspalditik zorretan geunden, eta oraintxe zen unea berari zerbait eskaintzeko. Batez ere, betiko bertsolari eta bertsozaleek etorri beharko lukete erakusketara, baina baita gazteek ere: bertsolari zaharraren idazkera, estioa... ikus ditzakete.

MUSIKA/ 'EHUNGARRENEAN HAMAICA. LAUXETA 2005' IKUSKIZUNAREN AURRE-ESTREINALDIA

Hamaika kantari bikain Elgetan

LAUXETARI OMENALDI BEROA EGIN ZIOTEN EGUNGO HAMAICA EUSKAL MUSIKARIK, HITZA, ANTZEZLANA ETA KANTUA NAHASTUZ

NAIARA LARRAÑAGA

Hamaika artista taula gainean batu eta dena ondo joatea ez da erraza. Antzokiko emanaldia duina izan zen. Zirrara sortu zuten kantariak, txaloak eragin, harritu... antzezleak eta idazleak gidatu zuten emanaldia eta Rafa Ruedak jarri zuen lotzeko beharrezkoa zen haria. Emanaldi borobil eta profesionala.

Espaloia Kafe Antzokira gerturatu zirenek ez dute erraz ahaztuko ikusitakoa. Seguru kontzertu berbera ikustera ere joango direla hainbat. Beste bost kontzertu egingo dituzte bakarrik. Aukerarik baduzue ez galdu, ikustekoa.

LAUXETAREN MENDEURRENA

Bizkaiko idazlea fusilatu zutela 100 urte bete dira eta hori izan da aitzakia egitasmo hau disko eta zuzeneko bihurtzeko. Diskoan kantak agertzen dira, baina zuzenekoan Edorta Jimenez idazleak testuak egin zituen kantari eta kantari artean etenik egon ez zedin. Txalorik ez jotzeko ere eskatu zuen, baina ezinezkoa egin zen taula gaineko kalitate ikusita. Kanta bakoitzaren ostean entzun zen txalo zaparradaren bat eta amaieran eskerrona adierazi zuten entzuleek.

ARTISTAK BANAN-BANAN

Entzutetsuenak diren musikariak taula gaina menderatu zuten: Mikel Urdangarin serio eta fin, Gari lasai eta komunikatzen edo Eñaut Elorrieta bereziki zentratua eta taula gainean oso eroso, bikain.



JULIO CALLEJA

Martitzenean Elgetako Espaloira hurbildu zirenak txalo zaparrada eskaini zioten Txumari zein gainotzeko hamarrei.

Ondo baita: Anje Duhalde kantuan eta esku soinuarekin, Francis goitk behera preparatua eta bizkaiera perfektuan.

Beharbada beste kantari batzuk eman zuten sorpresa martitzen iluntzean. Rafa Ruedak pop giroko kanta freskoa egin zuen aipatzeko modukoak diren taldekide finekin: David Gonzalez baxuan, Rufo Urbina baterian eta Mikel Azpiroz teklatuetan. Txuma Murugarrenek

kanta txukuna egin du diskorako eta entzuleak mugiaraztera heldu zen. Muguruzaren estiloa gogoko dugunondako kanta ederria izan da, diskoko neska aho-tsa falta arren. Ezustekoa eman zuen Montoiaren *valsak*, lasai eta biluzik, kanta puskarekin. Xabi Strubell izango zen jendearendako ezezagunena, baina errezitatez modu horrek egin zuen belarrietarainoko gustuko bidea. Onena Petti: Zirrara, indarra,

iluntasun eta trinkotasuna. Gitarra jotzen maisu eta ahotsarekin oldarkor.

Aktore lanetan Argia Gardezabal (Hortzmuga) eta testuetan Edorta Jimenez. Zuzenean irakurritako testuak izan ziren. Indarrez, zuzen eta argi.

Artistak Lauaxeta izan ziren taula gainean, denek osatu zuten omenduaren figura eta taula azpikooi ere utzi ziguten osotasunaren parte izaten.

Bilgune natural

Debagoiendarren bilgune izan zen Espaloia martitzenean. Debagoienak badu xarmarik eta aste akaberrako arropak jantzita agertu ziren hainbat, martitzen buru-zurian. Artistak preparatuta: Rafa Rueda (trajez) Doctor Deseo taldeko Francis (elegante ezpainak pintatuta), Gari (alkandora zuri eta txapelarekin) edo Eñaut Elorrieta (txaketa eta guzti).


Debagoiena ordezkatuta: Mikel Irizar bikotearekin. Laneko arropekin etorri zen Iñaki Ugarteburu, kirol zuzendaria, Jose Arantzabal Begorekin, Miren ere kulturaz busti guran. Txikienak etxean utzita etorritako Elena Laka eta bikotea ere han. Edorta Arana ikusentzunezkoetan aditua neskez lagunduta: Maria Agirre, Itsaso Zubillaga... Oier Sarasua musikari saritua adi, Marijo Deogracias, Ruper Ordorika, Eneko Azkarate GOIENKARIAko zuzendaria, Juan Martin Elexpuru idazlea, Iker Barandiaran musikazalea...

Debagoieneko gune *glamurosoa*. Hori bai, langostinoen ordezkigarteko goxoeekin plana eginda.






4x4

aukera zabalena

Saltzeko eta erosteko
Nahi duzun modeloa ez badaukagu,
bilatu egingo dizugu
la berriak eta bigarren eskukoak
(bost urte baino gutxiagokoak)



4QUATTRO4
Aukerako 4x4 ibilgailuak
Musakola auzoa 21 (Roneo parean)
ARRASATE
Tel.: 605711576 eta 943 79 52 32
E-posta.: 4quattro4@telefonica.net



Urriak 21-28

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

MUSIKA

ARRASATE

► **Gose** taldeak estreinaldi diskoa, *Gose*, aurkeztuko du gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan.

► **Discipulos eta Black Diamond** taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 23:00etan.

BERGARA

► **DJ Belas eta DJ Redna** disko jartzaileek hardcore gaua girotuko dute gaur, egubakoitza, Ziripot tabernan, 23:00etan.

► **Zein? eta Zea Mays** taldeek joko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **Afrika** lana jokatu du Lausardi Koro Sinfonikoak bihar, zapatua, pilotalekuan, 22:00etan. Sarrera 10 euro da, 12 euro egunean bertan erosita. Donato Goienetek konposatutako lana da, ahotserako eta perkusiorako. Afrikar-amerikar kultura da gaia, eta musika genero asko jotzen dira: jazz, funkya, tribuen kantuak, lanekoak...

ELGETA

► **Mac Jeara's Band** jazz taldeak *Jazzaren abiadurak* delako kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 21:30ean.

OÑATI

► **Manifa, Banda Batxoki, P.K.U. eta Kontra Lei** taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean, 17:00etan.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Honako Internet ikastaroak** emango dituzte KZGunean: ikastaro orokorra (hilaren 28ra bitartean, 09:00-11:00), *NagusiWeb* (hilaren 24ra bitartean, 11:00-13:00), eta *Finantza erak-ekin lan egin* (lehenengo zatia hilaren 25ean, martitzena; bigarrena, hilaren 26an, eguaztena; biak 11:00-13:00 orduetartean).

ARRASATE

► **Biodantza ikastaroan** izena eman daiteke. Astean behin izaten da Arrasate Yoga Elkartearen arratsaldean, eguaztentean eta egubakoitzetan. Biodantzak laguntzen du gorputzaren berezko osasuna zaintzen bakarkako edo taldeko ariketekin. Argibideak, 679 44 12 29 telefono zenbakian.

► **Osasun heziketarako ikastaroa** antolatuko du Acabe-k, anorexiaren eta bulimiaren aurkako elkarteak. Egun bakarreko ikastaroa izango da, azaroaren 2an, eguaztena, Arrasateko kultura etxean. Izena emateko, deitu Arrasateko Udal Prebentzio Sailera (943 79 09 00) edo bidali mezu bat prebentzio@arrasate-mondragon.net helbidera.

ESKORIATZA

► **Zure egunkaria irakurri** delako Internet ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZGunean, 18:00etatik 20:00etara.

OSPAKIZUNAK

BERGARA

► **1964an jaiotakoek** urteko ospakizuna egingo dute eta batera afalduko dute Torrekua erretegiaren azaroaren 19an. Izena emateko epea zabalik dago azaroaren 13ra bitartean herriko plazako kioskoan. 10 euro da.

ELGETA

► **Hondarribiko trainerari** omenaldia egingo diote bihar, zapatua. Ekitaldiak 12:00etan hasiko dira, udaletxean ongietorriarekin. Gero, Hondarribiko arraunlariak eta Elgetako euren lagunek sokatira egingo dute; segidan, luntxa eta bolo jokoa. 13:45ean, Conchako estropada ikusiko dute; bukatzeko, poteoa eta bazkaria.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Bizkarrezurreko gaitzen** gaineko berbaldia egingo du Marmier doktoreak egunean, hilak 27, Olaran etxean, 18:30ean.

ARRASATE

► **Bartzelona-Real Sociedad** partidua ikustera joango da Arrasate Txuri-Urdin taldea. Urriaren 29tik azaroaren 1era izango da irteera, eta 140 euro kostatzen da. Prezioan sartzen dira joan-etorriko autobusa, hiru gau lau izarretako hotelean Granollersen eta gosaria han, Bartzelonara joan-etorriak eguneroko eta bidaia aseguru. Izena emateko, jo Monte tabernara hilaren 23a, domeka, baino lehen.

► **Bertsolari Txapelketa Nagusiko** finalaren azken laurdenak jokatu dira etzi, domeka, Amaia antzokian, 17:00etan.

► **Zahar Berrik** berba taldeko lehen batzarra egingo du gaur, egubakoitza: afari-merienda egingo dute AEDko tabernan, eta *Arrautza Delikatua*

antzezlana ikusiko dute Jai Zale tabernan 23:00etan. Argibideetarako telefonoa 943 77 12 28 da.

► **Gazte abertzaleen nazio kalejira** deitu dute datorren zapatuan, hilaren 29an, Iruñean, eta Debagoienetik autobusa antolatu dute. Izena emateko, jo lehenbailehen Irati tabernara. 7 euro da, 5 euro langabe eta ikasleendako. Kalejira 18:00etan hasiko da.

► **Pobrezia Zero plataformak** ekitaldia egingo du astelehenean, hilak 24, udaletxe aurrean, 19:00etan: manifestua irakurriko dute, kanpainako pankarta eskegiko dute eta Udalaren atxikimenduari berri emango dute.

BERGARA

► **Aupa Etxebeste!** filma emango dute hilaren 28an eta 29an pilotalekuan. Eguneroko bi saio egingo dituzte. Sarrerak aldeztu aurretik saltzen dituzte kultura etxean, 18:00etatik 21:00etara. 2 euro da salneurria.

► **Debagoien eta Debabarreneko odol-emaileak** etzi, domeka, batzartuko dira Eibarren, Arraten. Meza entzungo dute 12:30ean eta batera bazkalduko dute gero Cantabria jatetxean. Tartean,

46 bergarar omenduko dituzte. Bazkarirako txartelak eskatu behar dira 943 76 16 24 edo 943 76 22 36 telefonoetara deituta, Puy botikan (943 76 16 87) edo Agirrebeña dendan (943 76 18 29).

► **Bakea gaur eta hemen** delako hitzaldia egingo du Mariano Ferrer kazetariak eguaztentean, hilak 26, Miguel Altuna ikastetxean, 19:30ean, San Joxepe elkarteak antolatuta.

► **Aroztegi aretoan erakutsi** gura duten artistek eskariak aurkezteko aukera dute azaroaren 18ra bitartean. Horretarako eskari-orri eredu eta baldintzen plegua udaletxean daude.

ESKORIATZA

► **23. Mendi Bizikleta Ibilaldia** egingo dute etzi, domeka. Izena emateko, jo herriko plazara 09:00etan. 7 euro da federatuendako, eta 10 euro gainerakoendako. Aseguru, hamarretakoa, aldagela eta dutxak, bizikleta garbitzeko lekua, oroigarria eta luntxa eskainiko dituzte. Irteera bera 09:30ean hasiko da.

► **Gaztelekuan** honako ekintzak antolatu dituzte datozen egunotan: mahai-joko txapelketa (hilak 21 eta 22); Burgosera multiabentura irteera (hilak 23, domeka) eta perkusio ikastaroa (hilak 28 eta 29, egubakoitza eta zapatua).

► **Guraso Eskolako** saioa izango da egunean, hilak 27, kultura etxean, 18:00etan: *Negoziaketa* da izenburua.

► **San Migeletako danborradako** antolatzaileek dei egiten dute utzitako jantziak bueltatzeko. Jantziok kultura etxera eraman behar dira lehenbailehen, 16:30etik 21:00etara bitartean.

OÑATI

► **Guraso Eskolan izena emateko** epea zabalik dago azaroaren 2ra bitartean Udal Prebentzio Sailean. 10 euro da. *Bullying* fenomeno, norbere kontrola eta erlaxazioa eta nerabezarou-rra landuko dituzte.

LEHIAKETAK

ARETXABALETA

► **Murruko Mendi Elkarteak** bere egutegirako argazkiak aukeratzeko lehiaketa deitu du. Gehienez ere, lau argazki aurkez daitezke, paperean, diapositiban edo formatu digitalean. Murrukoen lokalera eraman behar dira martitzenetan (19:00-20:00), edo 34. posta kutxara bidali. 125 euroko saria dago. Mugaeguna da azaroaren 8a.

DEBAGOIENA

► **Okelar bertso-paper lehiaketa** deitu du Mutrikuko Bertso Eskolak bi kategoriatan: 16 urte artekoena eta adin horretatik gorakoena. Mugaeguna da azaroaren 21a. Argibide gehiagorako, bidali mezu bat mbe@gaztesarea.net helbide elektronikora.



► MUSIKA

GLEN MATLOCK, SEX PISTOLS-EN SORTZAILEETAKO BAT, OÑATIN

Glen Matlock musikariak The Philistines bere taldearekin kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Oñatiko gaztelekuan; aurretik, Oñatiko Potemkin taldeak girotuko du gaua. Glen Matlock ezagunen da Sex Pistols taldearen sortzaileetako bat delako. Horrez geroztik, 70eko hamarkadako punk-rock mugimendua ulertzeko funtsezko pertsonaia da. Sex Pistols taldearen arrakasta asko berak idatzi zituen: *God save the Queen*, *Pretty Vacant*, *Holidays in the Sun*... Taldea gorenean zegoenean, Matlock-ek hura utzi eta The Rich Kids sortu zuen. Iggy Pop, Johnny Thunders, Dead Man Walking... eta beste batzuekin jo izan du. The Philistines taldearekin egin duen disko berria, *On Something*, aurkeztuko du Oñatin.

Non: Oñatiko gaztelekuan. **Noiz:** gaur, egubakoitza, 22:00etan. **Sarrera:** 5 euro. **Antolatzailea:** Gaztemaniak!

Zinema

ARAMAIO

■ KULTURA ETXEA

Million dollar baby
Egubakoitza: 22:30.

ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

La isla
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Sueño de una noche de San Juan
Zapatua: 17:00.

La memoria del asesino
Eguena: 20:30.

ELGETA

■ ESPALOA ANTZOKIA

El odio
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ KULTURA ETXEA

Obaba (euskaraz)
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Martitzena: 19:30.

Whisky
Eguena: 20:00.

EIBAR

■ UNZAGA

Princesas
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

Frágiles
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ GURIDI

Torrente 3
17:30, 22:30.

Una vida por delante
17:30, 20:00, 22:30.

¡Gooool!
17:30, 20:00, 22:30.

Frágiles
22:30.

Aupa Etxebeste! (euskaraz)
17:30, 20:00.

Transporter 2
17:30.

Juegos de mujer
20:00, 22:30.

■ FLORIDA-GURIDI

Princesas
17:30, 20:00, 22:30.

Lila dice
18:45.

Siete vírgenes
17:30, 20:00, 22:30.

Obaba
17:30, 20:00, 22:30.

La vida secreta de las palabras
17:00, 19:45, 22:30.

Cool
17:00, 20:30, 22:30.

El mercader de Venecia
19:45.

El método
17:00, 22:30.

El aura
17:00, 19:45, 22:30.

■ ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Transporter 2
16:00, 18:00, 20:00, 22:20, 00:40.

Frágiles
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

Boogeyman, la puerta del miedo
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Amor en juego
16:30, 19:00.

¡Gooool!
16:30, 19:10, 22:00, 00:30.

El secreto de los hermanos Grimm
16:00, 18:30.

Sr. y Sra. Smith
22:00, 00:30.

El habitante incierto
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

Torrente 3
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Ausentes
22:20, 00:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

De boda en boda
20:10, 22:30, 00:50.

Boogeyman, la puerta del miedo
12:15, 16:05, 18:05.

Cinderella man
21:50, 00:30.

Princesas
18:10, 20:25, 22:40, 00:55.

Transporter 2
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Wallace y Gromit: la maldición de las verduras
12:15, 15:50, 17:50, 19:50.

Charlie y la fábrica de chocolate
12:15, 16:00.

Una historia de violencia
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Torrente 3
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

El método
19:45, 22:05, 00:25.

Frágiles
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

El clan de los rompehuesos
12:15, 15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

El secreto de los hermanos Grimm
20:00, 22:20, 00:40.

Aupa Etxebeste! (espainolez)
12:15, 16:10, 18:10.

¡Gooool!
12:15, 15:30, 17:45, 20:05, 22:25, 00:45.

La madre del novio
12:15, 15:45, 17:45.

Serenity
12:15, 15:40, 18:00, 20:20, 22:40, 00:55.

Somme
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

El aura
12:15, 16:45, 19:30, 22:10, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ ÁBACO BOULEVARD

Transporter 2
12:00, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 01:00.

Frágiles
12:00, 16:00, 18:05, 20:15, 22:25, 00:45.

7 vírgenes
12:00, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

Una vida por delante
12:10, 17:15, 19:45, 22:10, 00:45.

Juegos de mujer
22:05, 00:45.

Sin fin
22:10, 00:45.

De boda en boda
12:00, 17:00, 19:30.

Wallace y Gromit: la maldición de las verduras
12:00, 16:10, 18:10, 20:10.

¡Gooool!: la película
12:15, 17:00, 19:45, 22:20, 01:00.

Torrente 3
12:15, 16:10, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Somme
12:00, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:45.

Una historia de violencia
12:00, 16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:45.

Obaba
19:30, 22:05, 00:30.

Serenity
12:10, 17:10, 19:40, 22:15, 00:45.

La madre del novio
12:15, 17:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Emakume bat hezi, herri bat hezi** delako erakusketa izango da Monterron kultura etxean hilaren 24tik 28ra bitartean, 18:00-20:00.

BERGARA

► **Azur-ren argazki psikodeliko erakusketa** dago Ziripot tabernan hilaren 28 arte. 35 bat argazki osatzen dute.

► **Fernando Arenaza** margolari bergararrak *Hankaz gora* erakusketa zabaldu du Kutxa Boulevard Aretoan.

ELGETA

► **J. Carlos Mora** margolariak erakusketa zabalduko du bihar, zapatua, Espaloia antzokian.

OÑATI

► **III. Ageriko Margo Lehiaketako** lanen erakusketa zabalik dago etzira, domekara, bitartean, kultura etxean. 18:30-20:30 da ordutegia.

ANTZERKIA

ANTZUOLA

► **Ipuin kontalari batek** ipuinak kontatuko ditu bihar, zapatua, liburute-gian, 17:00etan.

ARRASATE

► **Arrautza Delikatuak** delako antzezlanaren egingo dute Hika taldeko Teresa Andonegik eta Mikel Laskurainek gaur, egubakoitza, Jai Zale tabernan, 23:00etan. Kultur Errota programaren barne dago emanaldi hori.

ESKORIATZA

► **Antonino Apreta** ipuina kontatuko du Goringo taldeak eguenean, hilak 27, liburute-gian, 18:00etan. Bernardo Atxagaren ipuina da.

OÑATI

► **Otehitzari biraka** delako musika, poesia eta antzerki emanaldia egingo dute Kukai eta Tanttaka taldeek bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Sarrera 7 euro da aldeaz aurretik erosita, eta 8 euro txarteldegian.

► **Txintxilipurdi erregea** delako umeendako antzezlanaren egingo du Panta Rehi taldeak etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 17:00etan. 3-9 urte bitarteko umeendako da. 2,40 euro da sarrera, 3 euro egunean bertan erosita.

Las llaves de casa: ●●● | Charlie y la fábrica de chocolate: ●●●● | Aupa Etxebeste!: ●●● | Princesas: ●● | Obaba: ●●

ESKASA: ● BALEKOA: ●● ONA: ●●● OSO ONA: ●●●● BIKAINA: ●●●●●

KRITIKA

UNA VIDA POR DELANTE

PUNTUAZIOA: ●●

ZUZENDARIA: Lasse Hallström.

AKTOREAK: Robert Redford, Morgan Freeman, Jennifer Lopez.

Zinemaren historiaren barruan, Euro-patik Ameriketako Estatu Batuetara joan diren zuzendari asko ezagutzen ditugu. Lasse Hallström, Mi vida como un perro filmaren egile suediarra, talde horretan koka dezakegu. AEBetan oso lan interesgarriak egin ditu: *¿A quien ama Gilbert Grape?*, *Las normas de la casa de la sidra* edo *Choco-*

lat. Orain, Casanovari buruzko filma Veneziako festibalean aurkeztu duenean, bere aurreko lana, *Una vida por delante*, gure pantailetara heldu da. Haren lanetan, bizitzan sortzen diren lotura sentimentalek garrantzi handia dute, eta bizitzaren etapa edo belaunaldi desberdinetan dauden pertsonaien arteko harremanak askotan agertzen dira: hel-duen eta haurren arteko harremanak, esate baterako, bere film gehienetan agertzen dira. Bizitzarekin gatazka iraunkor baten bizi diren pertsonaiak azaltzen dira, baita gizartea normalizat hartzen dituen portaerak mantentzen ez dituen pertsonaiak ere. Eta, hori dena, kontatzeko errealismoa eta, batzuetan, ipuin eta magia ukitua ere erabiltzen ditu. Adibidez, *Chocolat* ipuin magikoa



zen; *Las normas de la casa de la sidra*-k, bestalde, ipuinen kutsua bazuen ere, Irving nobelaren tonu bitxia eta burugabea murriztuta dago, eta *Una vida por delante*-n txanponaren bi aldeak agertzen dira: pertsonaien harreman sentimentalak modu ederrean azalduta daude (nahiko topikoa den istorio bate-tik, pertsonaien arteko harremanen isla-pen nahiko sinesgarriak lortzen ditu: Redford, Lopez, Freeman eta neskatilaren

artearen sortzen diren istorioak politak dira. Aktoreak onak dira eta zuzendariak horiei hurbiltzeko erabilitako errealismoa, eta modu dotoreak eta sentimenduak tratatzeko esku onak sendotasuna ematen diote filmari.

Baina beste aldetik artzari buruz sortzen den istorioari, ipuinekin lotura duen istorioa, agian garrantzi handiegia ematen zaio eta ez du filmaren beste alderdiaren interesa. Redfordek eta neskatilak hartza askatu nahian, edo hartzak Freemanekin duen eszena ez dira oso onak eta filmak lortu duen sendotasuna txikitzea lortzen dute. Horrela, *Una vida por delante* ez da goi mailako lana, baina gustura ikusten da.

ANTONIO ZABALA

ZINEMA MERKEAGO

Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu

www.cinesabaco.com



Promozio baliagarria 2005/10/31, astelehenetik igandera. Ez da bateragarria beste promozioekin.



ZINEMA MAILA GORENEAN






Nieves Conde eta Eladio Blanco 1955eko urriaren 22an ezkondu ziren Allarizen (Ourense). Urrezko ezteiak beteko dituzten honetan, zorionak, familiakoen partetik!



Karmelo Bengoa eta Agustina San Migel aretxabaletarrak urriaren 22an ezkondu ziren orain dela 50 urte. Hain zuzen, egun berean, bihar, urrezko ezteiak ospatuko dituzte: Arantzazun meza entzungo dute lehenengo eta gero Lasa jatetxean bazkalduko dute etxeko guztiek. Zorionak, familiakoen partetik.



Vicente Okina Salsamendi eta Sofia Herran Izarra San Pedron ezkondu ziren orain dela 50 urte. Urrezko ezteiak ospatzeko bazkaria egingo dute familiakoekin. Zorionak, bikote.




Leisdy Paredes eta Juanma Garcia Valor urriaren 15ean ezkondu ziren Arrasateko udaletxean. Ondoren, bazkaria Oñatiko Etxe Aundi jatetxean egin zuten senide eta lagunekin. Zorionak, bikote, familiakoen partetik.



Guillermo eta Luisa 1980ko urriaren 18an ezkondu ziren Arantzazuko santutegian. Pasa den martitzenean, beraz, zilarrezko ezteiak ospatu zituzten. Familiakoen partetik, zorionak!



Beatriz Letamendi eta Juan Altuna 1980ko urriaren 18an ezkondu ziren. Martitzenean zilarrezko ezteiak ospatu zituzten, beraz. Zorionak, bioi, familiakoen partetik!



Ines Valentinek eta Narciso Andresek urriaren 22an egingo dituzte 50 urte ezkontuta, eta horrenbestez, urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Arteaga jatetxean ospatuko dute egun berezi hori familiakoekin. Etxeko partetik, zorionak!



Ines eta Jokin zapatuan, urriaren 22an, ezkontuko dira Arrasaten, Uribarri auzoko elizan. Bazen ordua, bikote! Ondo pasa ezkontza egunean eta are hobeto ezkon-bidaian. Zorionik beroenak, lagun guztien partetik.



Mari Jose eta Oier soralezuetarrak zapatuan ezkontuko dira Soralezeko udaletxean. Gero, Lasa jatetxean egingo dute ospakizuna.. Eztei-bidaian New York eta Punta Canara joango dira. Zorionak, bikote, familiakoen eta lagun partetik.

HILDAKOAK

Maria Madruga Borreguero. Aretxabaletan, irailaren 29an. 84 urte.
Jose Ramon Uribarren Lejarreta. Arrasaten, urriaren 5ean. 79 urte.
Jose Larrañaga Azpiri. Arrasaten, urriaren 5ean. 80 urte.
Diamantino De Oliveira. Arrasaten, urriaren 5ean. 55 urte.
Felix Aldekoa Larrañaga. Bergaran, urriaren 8an. 81 urte.
Luis Iturbe Milikua. Arrasaten, urriaren 9an. 72 urte.
Jose Ramon Arrieta Berezibar. Arrasaten, urriaren 9an. 62 urte.
Agapita Bilbao Azaola. Arrasaten, urriaren 9an. 92 urte.
Luis Esnaola Telleria. Bergaran, urriaren 10ean. 85 urte.
Dionisio Alkorta Zabaleta. Bergaran, urriaren 11n. 92 urte.
Txomin Gantxegi Ondarra. Bergaran, urriaren 11n. 73 urte.
M. Arantzazu Azkargorta Kortabarria. Bergaran, 11n. 84 urte.
Antonio Fernandez Herzog. Bergaran, urriaren 11n. 79 urte.
Emeterio Dominguez Dominguez. Eskoriatzan, 12an. 75 urte.
Antonio Carmona Segovia. Arrasaten, urriaren 13an. 38 urte.
Aurea Agirrezabal Arrese. Bergaran, urriaren 16an. 101 urte..
Jose Ramon Altuna Sagastigutxia. Bergaran, 16an. 61 urte.
Jose Vidal Romero. Oñatin, urriaren 17an. 81 urte.
Mikel Odriozola Igartua. Oñatin, urriaren 17an. 50 urte.
Ainhoa Apaolaza Rekondo. Arrasaten, urriaren 18an. 15 urte.

ESKELA

Ainhoa Apaolaza Rekondo

Arrasaten hil zen 2005eko urriaren 18an, 15 urte zituela.

Gure ametsaren eraikuntzan zu ere protagonista izan zara




Txatxilipurdi elkarte.
Arrasaten, 2005eko urriaren 21ean.

ESKELA

Ainhoa Apaolaza Rekondo

Arrasaten hil zen 2005eko urriaren 18an, 15 urte zituela.

Itsasoaren besarkada zain ur lasterrak eramana gure bihotzean ordea beti zure aingura.



Arizmendi Ikastolako Ferixalekuko ikasleak
Aretxabaletan, 2005eko urriaren 21ean.

ESKER ONA

Txomin Gantxegi Ondarra

Osintxun hil zen 2005eko urriaren 11n, 73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Osintxun, 2005eko urriaren 21ean.

URTEURRENA

Eusebio Arando Alberdi

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 23an, 12:00etan, osintxuko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.



GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.

Boni Laskurain 3 BERGARA

943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

**Haurdunaldi osteko
sabel-distentsioa**

**Ama izan naiz eta tripa zimur-
tuta eta bigunduta geratu zait,
oraindik haurdun nagoela
ematen du. Ezin dut gehiago.
Edozer egingo nuke lehengo
moduan egoteko. Liposukzio
eta korronteei buruz zerbait
entzun dut, baina ez dakit zer
egin dezakedan. Zure lagun-
tza eskertuko nizuke.**
Ana.



Sabela bere onera ekartzeko
hainbat tratamendu dago.

Ematen duenez, zuk dau-
kazu erditu ondorengo
sabel-distentsioa. Erditu
ondoren normala da hau gerta-
tzea. Orain dela gutxi erditu
baduzu, distentsioaren parte bat
lehengora bueltatuko da. Arike-
ta konkretu batzuk egin behar
dituzu sabeleko lerroa ixteko.
Zuzenena da bi hilabete gorpuz
osoa lantzea, eta eginda-
ko lana bi zatitan banatu: %50
sabelerako eta %50 gorputz
osorako. Zukabela bakarrik
ikusten duzu gaizki, baina ziur
nago gluteoak, izterrak eta biz-
karra ere asko erlaxatu direla.
Eta beste aukera bat da Pilates
egitea (oso aproposa ikusten dut
zuretako),abela oinarri hartu-
ta gorputz guztia lantzen du-eta.

Korronteen kontuak ere
emaitza onak ematen ditu (ema-
kumeak gimnasia joan ezin
duenean erabiltzen dit. Erdi-
tzetik denbora luzea pasatu
denean ere teknika hau erabil-
tzea gomendagarria da). Korron-
te tipoa aukeratu behar da,
honek egingo ditu behar diren
muskulu-uzkurdurak sabeleko
lerroa ixteko eta tripatxoa txiki-
tzeko; hau guztia, zu lasai zau-
den bitartean.

Liposukzioa, berriz, ez nizu-
ke gomendatuko (orain ez dizu
ezertarako balio izango); izan ere,
liposukzioak ondorengoa egiten
du: soberan dagoen koipe loka-
lizatua desagertzeko erabiltzen
da eta ez du distentsioaren ara-
zoa konpontzen.

Azalean irten zaizkizun zimur-
rak azalak jasan duen tentsio-
aren ondorio dira (**orain ez dizut
esango krema berezi bat eman
behar zenuela haurdunaldian,
agian eman duzu-eta. Dena
dela, askotan azalak ezin du
jasan tentsioa**).

Orain dela gutxi erditu badu-
zu, azido batzuen tratamendu
batekin hobekuntza igarriko
duzu. Honek azala birsortu egin-
go du; saio gutxi batzuetan egi-
ten da: keratolitiko nahasketa bat
ematen da azalean, honek jan
egiten du gainean dagoen aza-
la. Horren ostean, azido hialu-
ronikoa, glukosaminoglikanoa
eta kolagenoaren eta elastina-
ren (gure azalaren elementu
garrantzitsuenak dira) produk-
zioa eta birsorkuntza potentzia
dezaketen beste substantzia
batzuekin azal leuna lor deza-
kegu.

Dena dela, kontuan hartu
behar da zein gradutako dis-
tentsioa den eta zuntz elastiko-
ak apurtuta dauden edo ez.
Azterketa eta proba txiki bat
egin ondoren jakin dezakegu
zenbateraino berreskura deza-
kegun.





Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Gabezia	Barkamen	Begiradak
	Murriz, urri	Ukuihua	
*Izena			
Mondragon Unibertsitatea			
Tristatu, kezkatu	Arrastoa, seinalea		
Baia jangarriak	Ospea		
Holmioa		Joan den urtea	*Deitura
Jainkosa grekoa		Zorraren ordaina	
		Indioaren sinboloa	
		Lapurdiko hiriburua	
Gauza, kapaz		Suge handia	
Dago		Zein tokitan	
	Zintzoa		Bost
	Sinbolo		Nitrogenoa
Pare bat		Gorputz atala	
Fakultateetan buru		Erne	
			Roentgen
			... egin, erabat ase
Daukat (alderantziz)		Zein	
Aterki, guardasol		Tona	

BILABILA7



UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



BILETE MOTAK

Ziegan daudela, preso batek besteari:
- Eta zu zergatik zaude hemen?
- Bateren bat Estatuak nire billeteen berdin-berdinak egiten zituela ohartu zelako.

OPARIA

Ainhoak kanabera bat oparitu nahi dio Imanoli urtebetetze egunerako. Ehiza eta arrantzako denda batera joan, eta bertan dauden kanaberen artean onena erostea erabaki du. Bat hartu eta dendariaren-gana hurbildu da:
- Kanabera honek zenbat balio duen esango al didazu?
- Bai, berehala, baina itsua naiz eta zein hartu duzun ikusi ezin dudanez, axola ez bazaizu bota ezazu lurrera eta ateratzen duen hotsarekin jakingo dut zein den.

Ainhoak, hori entzunda, kanabera askatu eta lurrera erortzean dendari itsuak:

- A, bai! Urki 8600 modeloa. 550 euro.
- Ongi da, bilduko al didazu, mesedez?

Hori esatearekin batera, Ainhoa kanabera jasotzera makurtu da. Mugimendua bizkorregi egin, ordea, eta barruko gas kirastuak isilik baina edonor itotzeko moduan hedatu dira dendan. Eta dendari itsuak:

Guztia, beraz, 760 euro. 760 euro? Oraintxe bertan 550 euro esan didazu!
- Bai, 550 euro kanabera. Baina ahateentzako apeua, erreklamo, 40 euro da, eta beita kirasduna 170 euro.

SOLUZIOAK

O	K	V	T	I	R	N	E
R	N	•	D	U	T	•	
R	•	O	N	A	K	E	D
A	N	I	O	•	I	B	•
V	•	A	N	O	•	A	D
A	O	B	•	I	A	G	•
N	I	N	•	A	F	N	I
•	Z	A	I	•	O	H	•
K	A	T	S	U	S	A	M
A	K	A	R	A	M	•	N
O	R	O	K	•			
S	K	A	S	E	S	K	
•	B	•	E	•			



Urriaren 24a: 061 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa


Sariak astero!

Astelehenean, urriak 24, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.

Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Urriaren 24ko sariak



- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).

ECRON
musika-kate
zoragarri bat!



BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

060
zozketa
saridunak

Hauek izan dira
aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago,
ZORIONAK!

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).

- Lurdes Arrue Aizpurua (Arrasate)
- Felix Hernandez Paunero (Arrasate)

EIBAR-CASTELLO futbol partidua ikusteko sei gonbidapen (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).

- Maribel Garro Gallastegi (Arrasate)
- Kontxi Ugalde Izeta (Bergara)
- Juan Antonio Unzurrunzaga Posada (Bergara)
- Nekane Gabilondo Ugarte (Bergara)
- Vicente Agiriano Jauregi (Eskoriatza)
- Kontxi Montes Rodicio (Arrasate)

Euskarazko tokiko telebistak kexu dira, dirulaguntza gutxi jasotzen dutelako

Eusko Jaurlaritzaren laguntza politikarekin kexu dira Tokiko sareko telebistak

GOIENKARIA

GOITB eta gainerako euskarazko toki telebistak ez daude gustura Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza politikarekin. Lizentzien banaketak eta digitalizazioak behartuko ditu inbertsio handiak egitera eta dirulaguntza beharrak handiagoak izango dira.

Aurreko astean prentsako zenbait eragile kritiko azaldu ziren, Jaurlaritzaren dirulaguntzak berandu iristeaz gain ez zirelako egokitu euskarazko prentsaren gaur egungo beharretara. Bada, euskarazko tokiko telebistak ere kexu dira Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza politikarekin.

Telebisten iritziz, euren sektorearen egoera askoz gogorragoa da: 150.000 euro dira 2005eko aurrekontuetan sektore osoarentzat izendatutakoak. Besteak beste, aurten hedapen lizentziak lortzeko prozesura aurkeztu beharko dute tokiko telebistek, eta, era berean, emisioa digitalizatu egin beharko dute. Hori guztia kontuan izanda, euskarazko toki telebistek inbertsio handiagoak beharko dituzte.

GASTUAK HANDITU EGINGO DIRA

Gaur egun Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen dirulaguntzekin oso zaila gertatuko zaio bati baino gehiagori aurrera egitea.

GOITBk uste du arriskua betikoa dela: sektorea erdarazko talde mediatiko handien esku gertatzea. Eta hala uste dute, era berean, toki telebisten ordezkari guztiek. Ikusirik idatzizko euskarazko hedabideek telebistentzat dirua eskatzen ez zutela, Goienak ez zuen sinatu aurrekoan euskarazko prentsak sinatutako dokumentua.



'Ilunpean'

EGUBAKOITZA / 22:15

Ibarreko mugak gaindituz, elkarrizketa gertukoak

Oraingo ikasturtean ere Euskal Herriko pertsonaia ezagunak elkarrizketatuko ditu Oihana Elortza kazetari oñatiarrak.

Aintzane Gardoki kazetariari lekukoa hartu zionetik Oihana Elortzak elkarrizketa ugari egin ditu GOITBko platon. Elkarrizketa intimoak izaten dira, gonbidatuari aukera ematen diotenak bere aurpegi ezezaguna erakusteko. Dagoeneko ikasturte honetan Txan magoa eta Kirmen Uribe igaro dira Goiena Telebistatik, eta, datozen hila-beteotan beste zenbait artista, kirolari, politikari, idazle eta

euskal panoramako pertsonaia ezagun etorriko dira. Aurten, gainera, berrikuntza bat izango da: hain zuzen, Tokiko sareko gainerako euskarazko toki telebistek ere eskainiko dituzte *Ilunpean* saioko elkarrizketak.

Aurten, Tokiko sareko toki telebistek ere eskainiko dute 'Ilunpean' saioa



'Albistegiak'

EGUNERO

Hamaika albistegi, informatuta egoteko

Goiena Telebistak duen balio nagusia da informatzailea dela, eta oraingo ikasturtean ahalegin berezia egingo du gertuko informazioa ibarreko ikus-entzuleei helarazteko. Egutero, hamaika albistegi eskainiko ditu, 13:45ean lehena eta 23:45ean azkena. Aurreneko albistegiak *Gaurkoak* izena du eta bi minutuan egingo du ibarreko eguneko albiste nagusien gainbegiratu.

14:45ean, Julen Iriondok aurkeztuko du *Egurdiko albistegia* eta, 19:45ean eta 21:45ean, Deiane Arrietak gaueko infor-

matibo nagusia eskainiko du. Mikel Saiz, Haritz Altube eta Jone Inuntziaga kameranariak, Mikel Alberdi errealizadoreak eta lau laguneko kazetari taldeak egingo dituzte Goiena Telebistako albistegiak.

Gertuko informazioa, ibarreko ikus-entzuleei helarazteko

TELEBERRIAK

Toyota izango da 'Harmailatik' kirol saioaren aurtengo babeslea

Geroago eta gehiago dira Goiena Telebistan publizitatea egin gura duten enpresak. Iraragarkiez gain, aurrerantzean publizitate estatikoa erabiltzen hasiko da GOITB zenbait saiotan. Besteak beste, Toyota automobil etxeak *Harmailatik* kirol programa babestuko du. Iraragarkiak egingo ditu Toyotak Goiena Telebistan eta, gainera, publizitate estatikoa jarriko du *Harmailatik* saioaren dekoratuan.

Errugbi-zaleek aukera bikaina izango dute GOITBn

Espainiako Estatuko lehen mailako errugbi txapelketako partidua eskainiko ditu aurten GOITBk. Ordizia errugbi taldeak gorengo mailan jokatu du aurten eta Goierri Telebistak grabatuko ditu ordiziarrek etxean jokatu dituzten partidua. Errugbi partiduen emanaldiekin datorren hastean hasiko dira Goiena Telebistan. Ordizia eta Bera Berak jokatu dituzten neurketaren emanaldiekin.

Bertsolari Txapelketa Nagusia Goiena Telebistan

Abian da 2005eko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Dagoeneko hasi dira final-laurdenak jokatzeko eta domekan Arrasaten dute hitzordua. Aurreko asteburuan, berriz, Idiazabalen eskaini zuten saioa eta Goierriko saio hura Goiena Telebistan ikusteko aukera izango duzue datozen egunotan. Ekitaldia oso-osorik eskainiko dute GOITBn. Gainera, Arrasateko saioaren gaineko erreportajea egingo dute albistegietan.

TELEBEGI/Oihana Elortza

Bisuala

Aurreko baten GOITBko 16 mm programa ikusi nuen. Telebista piztu nuenean Aitor Arregi zinegile oñatiarra ari zen hizketan. Banekien film laburrei buruzko saioa zela, euskarazko film laburrei buruzkoa. Baina aitortzen hasita, ez nintzen film laburragatik gelditu saioa ikusten. Izugarri gustatu zitzaidan errealizazio lana. Programa bukatu zenean, GOITB ikusten jarraitu nuen eta ikusi nuen programazioa ez ezik, programak aurkezteko modua ere aldatu dutela, berriak direla aurkezpenak ere. Karetak, kamera mugimenduak, plano aldaketak, musika eta irudien arteko jokoak eta programaren beraren errealizazioa orain artekoak baino hobeak iruditu zitzaizkidan, ikusgarriagoak, eta gustatu zitzaidan ikusitakoa.

Programazio berriarekin batera, errealizadoreen, teknikarien eta kamera-lagunen lan berria ere etorri da GOITBra eta horiek zoriondu gura ditut. Gustatzen zaie lan berriak egitea, sortzea, irudimena lantzea, eta txukun lan egiten dutela erakutsi dute beste behin.



Udazkenean, abentura berriak

Liburu bat irakurtzen hasten garenean, ez dakigu zenbat abentura bizi araziko dugun, zenbat sorpresa aurkituko dugun orri artean...

Ikasturte hasieran berdina sentitzen dugu: beste lagun eta irakasle batzuk ezagutu, irakasgai ezezagunak ikasi... zenbat sentazio berri! Bai, bizitzari sorpresa puntu bat jartzen dio kurtsu hasierak. Udazkeneroko gatza eta piperra.

www.arizmendi.ikastola.net


Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Jon Zaldua/ Gai-jartzailea

Zer da zailagoa, gaiak asmatzea ala bertsolariei ondo irakurtzea oholtza gainean? Txapelketan, talde-lanean egiten da saio guztia, erabakiak taldean hartzen dira.

Baina Idiazabalgo saioan, zuri egokitu zitzaizun gai-jartzaile lanak egitea.

Bai. Berez, ni ez nago txapelketako lantaldean, ezta gai-jartzaileen taldean ere. Baina pentsatu zuten beti aurpegi berak ikusi beharrean, lurralde bakoitzeko saioak lurralde horretako gai-jartzaileak aurkeztea.

Zenbat gai prestatzen dira saioko?

Hamar gai eta 18 puntu saio bakoitzerako.

Badira batzuk.

Gainera, kontua ez da bakarrik horrenbeste gai biltzea, nolabaiteko parekotasuna ere izan behar dute gaiak elkarren artean, eta ez da erraza izaten.

Baldintzarik edo irizpiderik jarraitzen duzue?

Saiatzeko gara zortziko txikirako, adibidez, gai alaiak jartzen eta hamarreko txikirako, serioagoak. Bakar-kakorako, berriz, azkenaldi honetan

nahiko gai zabalak jartzen dituzte, nahiz eta domekan Zornotzan egin zuten saioan gai itxiagoak bota.

Egunkaria irakurrita joan behar da bertso saio batera?

Ez. Gai batzuk izaten dira egunerokotasunarekin lotuta daudenak, baina ez beti, gaiak ez dira-eta bezperan erabakitzen.

E-postaz bidaltzen dizkiozue elkarri gaien zerrendak?

Ez, ez, hitzordua egin eta fisikoki biltzen gara; elkarrekin pentsatzen eta erabakitzen ditugu gaiak.

'Hitzetik hortzera' duzu telebistako saiorik gustukoena?

Ikusten dut, bai, baina ez beti, ordutegiagatik ez zait eta beti parean egokitzen.

Aurkezle berria du.

Bai, Saroi Jauregik aurkeztuko du.

Zer irakasten duzu Bergarako Migel Altuna institutuan?

Mekanika. Tailerra eta Zerbaki Kontrola erakusten ditut. Duela lau urtetik hona naiz irakasle eta Bergarara aurten etorri naiz.

Ikasleekin gertatzen zaizkizunek ala eurek kontatzen dizkizutenek balio izaten dute bertsolariek bertsoa botatzeko?

Anekdotak gertatzen dira, bai, eta batzuetan aprobetxatzen ditugu, baina ezberdinak dira txapelketako saioak eta besteak.

Txapelketako saioak serioagoak dira, eta, gainera, gaiak ez doaz bertsolari bakoitzari zuzenduta, zozketa bidez erabakitzen da gaia norendako den; denak dira denendako.

Ikasleek badakite bertso-zalea zarela?

Ez dut uste, baina astelehenerako jakingo duten susmoa daukat.

Joango zara domekan Arrasateko saiora?

Bai, txapelketa osoa jarraitzeko asmoa dut.

"Txapelketako gaiak serioagoak izaten dira eta gaiak ez daude bertsolari bakoitzari zuzenduta, zozketa bidez egokitzen dira"

"10 gai eta 18 puntu behar dira saio bakoitzerako; ez da erraza izaten"

"Ikasturte honetan etorri naiz Bergarara eta Mekanika erakusten diet bi talderi"

► Villabona / 27 urte / Bergaran dihardu irakasle

PIPERRAUTSA

Ahulezia

Ibarretxe planarekin samur izan zitzaion Espainiarri sendo itxura ematea. Ozta-ozta eta txiripaz zeraman planak legezko gehiengo, eta idatzita zegoen konstituzio espainola gogoan hartu gabe. Behar zuenak, gainera, eskura zituen odol kontuak, zahar samarrak baina beti efikazak. Parlamentu espainiarrak gehiengo handiz bota zuen atzera, prozedura eta kontsensua aitzakia.

Orain, ordea, katalanek errespetatu egin dute prozedura, konstituzionaltasuna zaintzen ibili dira eta, azkenean, ordezkarien % 90ek onartu dute egitasmoa. Eta, oraindik eztabaida formala hasi ez denean, Espainiak argi erakutsi du bere ahulezia. Aitzakiak kendu zaizkionean, bistan gelditu da zer den Espainia.

Espainia da gerra askoren oihartzuna; azkena, *treintaseisekoa*, batasuna gordetze aldera egin, neurri handian. Espainia da lurralde bizkarroien aldarrikapena, Extremadurak eta Andaluziak eta Madrilak behar duten pagotxa, daudenetan irauteko. Eta Espainia da ultranazionalista zenbaiten aberria, besterik usaindu ere ez dutenena, konstituzio itxiari eta armada itsuari esker, banaezina.

Espainia, gaur, ez da egitasmo bat aurrera begira, ez da gai bereganatzeko deseroso dagoena; ez du sendotasun nahikorik birpentsatua izateko, ez du lider ausartik horretan saiatuko denik.

Ahul eta beldurti ikusten dut Espainia. Horregatik zarata eta indar mehatxuak.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzo s.l.

Zubillaga auzoa 1
 OÑATI
 Tel.: 943 71 63 22
 Faxe: 943 78 15 51